



**HAL**  
open science

**Senekaren izpiritua euskaraz: Larramendiren eraginaren  
eta itzulpengintza apologetikoaren adibide bat XVIII.  
mendeko Zuberoan**

Ekaitz Santazilia

► **To cite this version:**

Ekaitz Santazilia. Senekaren izpiritua euskaraz: Larramendiren eraginaren eta itzulpengintza apologetikoaren adibide bat XVIII. mendeko Zuberoan. Uztaro. Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria, 2022, 120, pp.95-122. 10.26876/uztaro.120.2022.6 . artxibo-04035543

**HAL Id: artxibo-04035543**

**<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-04035543>**

Submitted on 17 Mar 2023

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

# ***Senekaren izpiritua* euskaraz: Larramendiren eraginaren eta itzulpengintza apologetikoaren adibide bat XVIII. mendeko Zuberoan**

Ekaitz Santazilia  
Giza eta Hezkuntza Zientzien Saila  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA/NUP)

Belako zaldun mauletarrak XVIII. mendean euskarara itzultako testu filosofiko bat du hizpide lan honek. Lehenik, eskuizkribu argitaragabe hori testuingurura ekartzeko, Belaren eta Manuel Larramendiren arteko harremanaren inguruko xehetasunak eman ditut, lehenak bigarrenaren hizkuntz ideiak nola bereganatu eta Zuberoako datuekin osatu zituen erakutsiz. Ondoren, testua itzulpengintza apologetikoaren azpigenere berezi batean txertatu behar dela aldarrikatu dut, zeinean irakurleak ez baitu xede-hizkuntza ezagutzen, eta edukiak baino gehiago, formak hartzen duen garrantzi guztia. Azkenik, testuaren edizioa bera eman dut, iruzkin linguistikoz eta azalpenez horniturik.

GAKO-HITZAK: Belako zalduna · Senekaren itzulpengintza apologetikoa · Larramendiren eragina · XVIII. mendeko Zuberoa.

## ***Seneca's spirit* in Basque: An example of Larramendi's influence and apologetic translation in the 18th-century Soule**

This work is devoted to a philosophical text translated into Basque by the Mauleonese Knight of Bela in the 18th century. First of all, in order to put this unpublished manuscript into context, I have provided some details on the relation between Bela and Manuel Larramendi, showing how the first was imbued by the second's linguistic ideas, but completing them with data from Soule. Then, I have claimed that this text belongs to a special subgender of apologetic translation in which the reader does not know the target language, and in which the form gains the whole relevance upon the content. Last but not least, I have provided the text edition, including linguistic comments and explanations.

KEY WORDS: Knight of Bela · Seneca's apologetic translation · Larramendi's influence · 18th-century Soule.

## 1. Sarrera<sup>1</sup>

*Allanderi, Etxebarreko zaldünari*

Lan honetan Jean-Philippe Belak, Belako zaldunak (Maule, 1709/07/08-Paue, 1796/03/15), frantsesetik euskarara egindako itzulpen bat eta horren testuingurua ditut hizpide<sup>2</sup>. Zaldunak 1.400 orrialde inguruko euskaldunen historia bat utzi zuen eskuizkribaturik hiru liburukitan, eta bertan ageri da testua.

Egun Frantziako Biblioteka Nazionalean gordetako historia hori<sup>3</sup> harribitxia da geografia, etnografia, hizkuntzalaritza eta historia bera ikertu nahi duenarendako (ik. Walkenaer, 1834; Dubarat, 1913, 1923; Amézaga, 1984); izan ere, «herriaren «berraurkitze» aldia» deitutakoaren (Iztueta, Humboldt, Mogel...) eta are ondoko «batasun aldiaren» (Xaho, Abadia...) (Urgell, 2018: 550, 564) aurrekari sendotzat har daiteke, euskaldunen eta euren historiaren gainean agertzen duen ikuspegi homogeenogatik, noiz eta XVIII. mendean. Alabaina, lanak argitaragabe dirau, Jean-Baptiste Sanadonek (1785) —Bela bizi zela— karrikaratutako laburpen edo hautaketa bazter uzten badugu<sup>4</sup>.

Euskalaritzaren alorrean, gauza jakina da dokumentu horretan hiztegi poliglota bat ere badagoela, Peillenek (1983a) eta Urkizuk (1992) zatika baizik ez argitara emana<sup>5</sup>. Haatik, horren ezaguna ez den euskarari buruzko izaera apologetikoko disertazio bat ere badakar eskuizkribuak, hizkuntzaren balizko jatorriaz, edertasunaz eta perfekzioaz mintzo dena, eta gramatika-zantzu batzuk ere aipatzen dituena. Bada, atal horretan heldu da artikulua honetan aztergai dudana testua: *L'Esprit de Senèque* frantses liburutik ateratako pasarte batzuen euskarazko itzulpena<sup>6</sup>.

Itzulpen hori estakuru, Manuel Larramendiren pentsamoldeak eta obrak Pirinioez iparraldera izandako eragina ezagutzeko datu berriak eskainiko ditut. Belak Larramendiren erranak nola baliatu zituen erakutsiko dut lehenik, mauletarraren testua dagokion testuinguru historikoan txertatzeko (§ 2). Horrekin loturik, itzulpenaren soziologian sakonduko dut, helburuak eta motibazioak zurutuz, horiek testuaren

1. Autore honek asko zor die ebaluatzaile kukutu horiei, begi zorrotz bezain hauta agertu baitute egindako iruzkin eta ohar guztietan. Inoiz begietara balekizkit, kita nitiro ene zorrak. Eskerrik asko eman nahi dizkiet, orobat, Miren Ibarluzeari bai eta Bibliothèque et Archives nationales du Québec (BANQ)eko Jean-François Palominori eta Rachelle Célestini ere, 1704ko *L'esprit de Senèque* liburuaren irudiak fite (eta urririk) eskuratzeko emandako erraztasunengatik. Lan hau «Monumenta linguae vasconum (VI): Avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca» (MEC, PID2020-118445GB-I00) ikerketa-proiektuari dagokio.

2. Belaren datu biografikoetarako, ik. Asfeld (1841); Clément-Simon (1896); Jaugain & Ducéré (1895-1896); Dubarat (1913); Colas (1925); Urrutia (1927); Etcheverry (1946); Depréaux (1965); Desplat (1973) eta Santazilia (2020).

3. Signatura: NAF, 20053-20055. Testuak ez du izenbururik portadan, segur aski orrialde hori falta delako. *Histoire de Basques* izenez ezagutu izan da, hori delako kapitulu bakoitzaren izenburuan ageri dena. HB laburduraz izendatu dut lan honetan.

4. Lazcanok (1786) gaztelaniara bihurturik argitaratu zuen Sanadonen lana.

5. Belak, bestalde, *Memoires pour servir a l'histoire des basques avec un abrégé des roys du regne de Navarre* izeneko lana ere atondu zuen (hemendik aurrera MHB). Aski eskuizkribu ezezaguna da eta galdua egon da berriki arte. HB baino laburragoa da, liburuki bakarrekoa, eta HBren aurrekaritzat hartzeko argudio zenbait badira. Horretan ere hiztegitxo bat dago, atal apologetiko bat, baita gramatika labur bat ere (ik. Santazilia, 2020).

6. Peillenek (1983a: 224. oin-oh.) eta Urkizuk (1992: 321) testua aipatzen badute ere, ez da argitaratu.

beraren forma nola baldintzatu duten erakusteko (§ 3). Ondoren, itzulitako jatorrizko obraren gaineko xehetasun batzuk emanen ditut (§ 4), testuaren beraren edizio iruzkinduaren aurretik (§ 5). Ondorioekin (§ 6) eta erreferentziekin (§ 7) itxiko dut lana.

## 2. Bela: Larramendi zuberotarra

Manuel Larramendiren obrak Pirinioak gainditu zituela gauza jakina da (Urkizu, 1992; Padilla, 2012; Urgell, 2018)<sup>7</sup>. Haatik, Zuberoan zehazki, Larramendiren itzala ez bide da luzea izan; beste erreferentzia batzuk izan dituzte egile zuberotarrek (Padilla, 2017: 760), baina Jusef Egiategiren *Filosofo hūskaldunaren ekheia* lanean (Peillen, 1963, 1983b, 2010) erruz kausitzen ditugu *Hiztegi Hirukoitzetik* (Larramendi, 1745, hemendik aurrera HH) ateratako hitzak<sup>8</sup>, eta Intxauspek ere, XIX. mendean, eskutan ibili omen zuen HH.

Baina gutxitan aipatu izan da Bela ere Larramendiren eraginpeko autorea izan zela; eta, gero ikusiko denez, eragin hori nolakoa izan zen ezagutzea ezinbestekoa da aztergai dudan itzulpena dagokion testuingurura ekartzeko.

Larramendi aurkitzeak sakonki inarrosi zuen zaldunaren pentsamendua, HHtik hitzak hartze hutsetik haratago. Belak lehendik egindako saiakeran, MHBn (cf. 5. oin-oharra), Larramendiren gramatika (1729) aipatzen bada ere, HHren eraginik ez da antzematen<sup>9</sup>. HBn, ordea, euskararen gaineko disertazioa egiteko, MHBn bildutakoez gainera, zalduna jesulagunaren esanei lotu zitzaizen nagusiki, gaztelaniaz ez dakiten horiei euskararen gaineko ezagutza frantsesez helarazteko asmoz. Autoreak berak argitzen du hori<sup>10</sup>:

Les connoissances que nous aurions de celle [langue] des basques seroient très superficielles, si un jesuiste espagnol n'en auroit fait l'apologie [...]<sup>11</sup>.

Yl a falu l'interet national a ce religieux pour chercher l'origine et des progrès d'une langue si peu connue et a moy l'ambition de l'imiter pour donner sus ses mêmes principes une nouvelle forme a l'histoire de cette langue qui pût etre utile a ceux qui ignorent l'espagnol, et qui vouldroient avoir une idée du Basque (HB, III, *inter* 435-436).

7. Jean-Baptiste Bullet-ek, Besançonen katedradun zenak, *Mémoires sur la langue celtique* eman zuen argitara 1755., 1759. eta 1760. urteetan, eta, berak ere, berariaz aitortuta, HH baliatu zuen euskarazko datuen iturri gisa, beste lan batzuez gain (ik. Aquesolo, 1967). Orobat, Lapurdin badira XVIII. mendean berean, aski goiz, Larramendiren eragina jaso zuten testuak (ik. Padilla, 2012).

8. Are gehiago, Bela eta Egiategi garaikideak izan ziren eta bigarrenak lehena aipatzen du bere testuan (Peillen, 1983b: 17; 2010: ix). Peillenek, gainera, gerran elkarrekin aritu zirela dio. Testuaren edizioan erakutsiko denez, badira bi zuberotarren artean antzekotasunak, Larramendiren ereduari lotzen ez zaizkionak. Elkarrekin izandako harremanak ikertzea eta hori beren testuetan nola islatzen den erakustea, beraz, etorkizunerako ikergaia da.

9. Hartara, hizkuntzarekiko kezka hori Larramendi ezagutu aurretik datorkio Belari. MHBko hiztegitxoa Zulaikak (2012) egindako Larramendiren aurreko lexikografiaren zerranda zorrotzari gehitu beharko litzaioke.

10. Hitzez hitzeko aipuetan Belaren jatorrizko ortografia atxiki dut, baina ese luzeak arrunt bilakatuta, eta puntuazioa eta letra larriak egungo moldeetara ekarrita.

11. Ziur aski «apologie» dioenean ez da *De la antigüedad y universalidad del Bascuense en España* (Larramendi, 1728) edo *Discurso histórico sobre la famosa Cantabria* (Larramendi, 1736) lanez ari, HHren hitzaurreaz baizik. Edonola ere, 1736ko lana ere inoiz ezagutu zuen Belak; izan ere, MHBn hainbat albo-oharretan (27v, 28r, 29r) aipatzen da. MHB eskuizkribua HB baino zaharragoa bada ere (Santazilia, 2020), ohar horiek MHB idatzi ondotik gehitutakoak izan daitezke.

HHren beraren hitzaurrea aski baliagarria izan zitaion Belari bere disertazioan, berak onartu bezala:

Un célèbre jesuite [...] [oin-oharrean: «Le p. de Larramendy confesseur de la regne d'Espagne veuve de Charles II»] nous a donné un dictionnaire en langues espagnole, basque et latine [...]. C'est un ouvrage singulier et qui tiendra sa place dans les productions les plus remarquables par la multiplicité de son travail. La sçavante préface dont yl a orné cet ouvrage paroît moins avoir été fait pour le dictionnaire, que le dictionnaire pour la préface, parce qu'il a cherché a donner au public une juste idée d'une langue jusque là peu connue [...]. Je ne risque, dont, rien de suivre pas a pas sa plume victorieuse [...].

Il divise son ouvrage en trois parties [...]. Je trancheray militairement sur toutes ces divisions, et ne feray de ceci qu'un sommaire [...] (HB, III, 440-441).

Belak dio HHren hitzaurrearen hiru ataletan barna jauzi eginen duela, eta laburpen bat baizik ez eskaini. Hala eta guztiz ere, oin-ohar batean, aditzera ematen du Trévouxeko memorieta<sup>12</sup>, 1748ko urriko zenbakian hain zuzen, HHren erreseina bat argitaratu zela Larramendiren hiztegia goraiatuz, eta bere disertaziorako horri jarraikiko zaiola (HB, III, 440). Erreseina Belaren testuarekin alderatuta, garbi ikusten da mauletarrak hura gidoi gisa baliatu zuela are pasarte osoak kopiatuz, nahiz eta atal batzuk moldatu, osatu eta gehiago garatu, HH aldean zuela.

Disertazioan zehar, beraz, ugariak dira Larramendiri egindako erreferentzia zuzenak, eta atondutako hiztegian ere HHTik edaten du, jadanik Peillenek (1983a) erakutsi bezala. Hala gertatzen da mintzagai dugun itzulpenean ere, testuan bertan erakutsiko denez (ik. § 5).

Belak eta Larramendik harreman zuzena ere izan zuten. Aurreko aipu batean ikusi dugunez, zaldunak andoaindarrarengandik jaso zuen HH («Un célèbre jesuite [...] nous a donné un dictionnaire...»), baina hori gutxi balitz bezala, buruz buru ere ezagutu zuten elkar. Ez dakigu, baina, hori noiz izan zen. Bitxikeria gisa, desagun Larramendi ez bide zela frantsesez behar bezala mintzatzeko gai, ezta Bela gaztelaniaz ere, baina euskarara jo zutenean, Gipuzkoakora lehenak eta Zuberoakora bigarrenak, elkar ongi aditu ezinik, latinera jo behar izan zutela<sup>13</sup>. Hala kontatzen du Belak afera<sup>14</sup>:

Car j'ay été en Espagne pour y voir le fameux p. de Larramendy. Yl ne parlait point le françois quoy qu'yl l'entende parfaitement. Je n'étois pas asses versé dans la langue espagnole pour lier dans cette langue une conversation suivi. Je deboutay avec luy en basque dans le dialecte de Soule, et yl me repondit dans celuy

---

12. Jesusen lagundiak bultzatuta, 1701etik aurrera Trévouxen argitaratutako hilabetekaria dugu *Mémoires pour l'histoire des sciences et des beaux-arts*, eta argitalpenen artikulua eta liburuen erreseinak kaleratzen zituen zientziez eta erlijioaz. Belak gaztigatu bezala, Larramendiren hiztegiaren erreseina argitaratu zuten (Izengabea, 1748).

13. Peillenek (2010: x) ere kontatzen du, E. Lambertek esanik, Belak Larramendi bisitatu zuela Baionan, eta latinez mintzatu zirela. Ez dakit Lambertek nondik eskuratu duen informazio hori, baina eskuizkribuan bederen ez da aipatzen Baionan elkartu zirenik, Espainian baizik.

14. Larramendik aberastasuntzat zuen euskalki-aniztasuna, eta euskalkien arteko aldeak ez ziren, bere ustez, hain sakonak (Pagola, 1992). Elkar ulertzeko muga, halere, egon bazegoela dirudi, zenbait gairen inguruan aritzeko behinik behin. Belak berak, euskalkien arteko aldeez mintzo, zera dio: «Celuy de Soule est presque inintelligible aux autres basques» (HB, III, 452).

de Guypuzcoa. L'entretien tomba bientôt faute de nous entendre; la difficulté étoit égale de part en d'autre, pour comprendre ce que nous nous disions; en fin nous fumes obligés de recourir au latin pour nous expliquer après être convenus que nos dialectes ne s'entendoient point assés pour un long entretien (HB, III, 479).

Zaldunak bere egiten du Larramendiren ikuspegia, eta «zuberotartzen» du, bere irakurlegoarendako moldatzen. Hala, Belak maiz bere hizkeraren adibideak gehitzen dizkie Larramendiren ideiei, eta Zuberoako euskalkia ere berariaz aipatzen du<sup>15</sup>; izan ere, «le dialecte de Soule, que ÿe ne vante pas comme le plus riche, quoyqu'elle soit celle de ma patrie» (HB, III, 467), baina euskara ona aurkitzeko, Zuberoako mendietara jotzea aski da:

On dit que c'est dans les hauts montagnes de Soule que la langue basque est la plus elegante, par le choix des expressions riches et heureuses qui est naturel a leurs habitans, qui n'ont presque point de commerce avec le reste des hommes (HB, III, 452).

Ikus ditzagun Zuberoako euskararen presentziaren adibide bakan batzuk xehekiago. Hizkuntzaren aberastasunaren erakusgarri, esaterako, behin baino gehiagotan jotzen du mauletarrak bere mintzora. Hona adibide bat (HB, III, 467):

Par ce seul exemple où yl ne sagit que d'un mot inanimé et peu interessant par luy même, on jugera de l'expression de ceux qui le font davantage:

Heÿagorá, cry qui annonce un grand accident.

Helés, cry qui marque des douleurs aigues.

Sÿnká, cry de yoÿe.

Oÿhú, cry de quelcun qui apelle.

Schikittó, cri d'injure et d'insulte.

Herotzá, bourdonnement confus.

Azalia, mouvement melé de cris et de bruit.

La propriété de ces cris consiste a juger surement de l'espece d'accident que les fait faire<sup>16</sup>, et ceux de cette nature sont d'une si grande énergie que les cheveux enherissent aux basques<sup>17</sup> dont les oreilles en sont frappées<sup>18</sup>.

Lex animaux, chacun de leur espece, fournissent d'autres exemples.

Tscichá, le poulet sortant de la coque.

Oillascoá, le poulet de deux mois.

Oillandá, la poularde.

Oilloá, la poule

---

15. Larramendik ez du HHn Zuberoako mintzoa aipatzen. Aldiz, *Corografía o descripción general de la muy noble y muy leal provincia de Guipúzcoa* lanean (Larramendi, 1882 [1754]) berariaz aipatzen dira bizkaitarra, gipuzkoarra, nafarra, lapurterra eta zuberotarra, baita arabarra ere, Bizkaikoaren barnean (Pagola, 1992: 259; Padilla, 2017: 5). Belak ere herrialde bakoitzeko mintzoa aipatzen du (HB, III, 466) nahiz eta ez zuen, seguru asko, Larramendiren *Corografía* —orduan argitaragabea— ezagutu.

16. Hitz hau aurretik ezabatutako beste zenbaiten ordeztatu zen.

17. Hitz hau eta aurrekoa ezabatutako beste baten ordeztatu ziren.

18. Oin-oharrean: «Les cris a l'aide au secours a moy qui sont en usage dans la langue françoise n'en aprochent pas».

Aschouríá, l'agneau<sup>19</sup>.  
Anschia?<sup>20</sup>, le jeune mouton.  
Anharioá<sup>21</sup>, la<sup>22</sup> mouton de deux ans.  
Anhariá<sup>23</sup>, la<sup>24</sup> mouton de trois ans.  
Hartzár, une vieux mouton. Hartxarxa, la brebis<sup>25</sup>.  
Scháála. le veau.  
Erguíá, veau de deux ans.  
Zézéná, Le bœuf de trois ans.  
Idià, le bœuf de cinq ans.  
Tscherria, le cochon de laict.  
Ourdia, cochon fait.

Orobat, Platonek hebreerarekin egin bezala, Larramendik euskara hizkuntza filosofikoa dela erakutsi nahi du, eta beraz, pentsamolde kratilistari jarraikiz (ik. Gómez, 1997), hitzen forman bertan antzematen dela hitzaren beraren esanahia (HH, I, iii). Jesulagunak berariaz bazter uzten ditu onomatopeiak, hizkuntza gehiagotan aurkitzen baitira, nahiz eta euskara bereziki emankorra bide den horretan. Belak, ordea, horiek baliatzen ditu hain zuzen, euskararen aberastasunaren adibide (HB, III, 441):

Orhoüna, mugissement du bœuf.  
Irhinziria, hannissement du cheval.  
Marraca, grognement du cochon.  
Schamppa, japement du chien.  
Edauzia, aboïement avec morsure.  
Cocorax, coquetement de la poule.  
Cucurucu, le chant du cocq.  
Hustia, sifflement d'un oiseau.  
Canca, le cry de l'oye.  
Khouinska, celuy du rat.  
Marhoüa, celuy du chat.  
Mééh, celuy du mouton ou de la brebis.

Aurrekoaren ildoan, euskararen izaera filosofikoaren erakusgarri, Larramendik etimologiak ematen ditu, eta Belak, kasu batzuetan, bere aldaerak gehitzen dizkie etimologia horiei, Zuberoako euskaratik abiatuz. Esate baterako eta besteak beste,

19. Lehendabizi «un agneau» idatzi zuen eta gero zuzendu.

20. Ondoren <n> ezabatu zuen.

21. Ondoren <n> ezabatu zuen.

22. Lehendabizi «un» idatzi zuen eta gero zuzendu.

23. Ondoren <n> ezabatu zuen.

24. Lehendabizi «un» idatzi zuen eta gero zuzendu.

25. «Hartxarxa, la brebis» geroago gehitu da.

Larramendik (HH, I, iii) *egusquiña* edo *gabál/gaubá* dakarreanean, Belak horiek jaso eta *ekia* eta *gaya* ere ematen ditu, nahiz eta aldaera horiek Larramendiren etimologien alde ez egin ('hacedor del día' cf. *egun egin*; 'defecto, falta, destitución', cf. *gabe*). Are gehiago, noizbehinka etimologia propioa ematera ere ausartzen da Bela. Larramendik *Jaincoá* eta *Jaungoicoá* 'señor de lo alto' (HH, I, iii) dakartza (lehena bigarrenaren sinkopa delakoan) eta zaldunak *gincoa* eta *gingoicoa* gaineratzen ditu, 'celuy qui doit venir' etimologia emanez (cf. *jin* 'etorri')<sup>26</sup>.

Gauza bera gertatzen da deituren etimologiekin. Larramendik *Mendoza*, *Zuñiga*, *Osorio* eta bestelako abizenak euskaratik eratorzen ditu, euskara inoiz Espainia osoan hedatua egon zela erakusteko (HH, I, cxviii). Belak horietako batzuk jaso, eta Frantziako koroaren peko deitura batzuk gaineratzen ditu, horiek Espainiatik heldu eta, beraz, kantauriarren ondorengo direla erakusteko (HB, III, 463):

Etxauxé, Etxaux, de *eché-auxé* 'maison reduite en cendre'; Urthubiá, Urtubie, de *uturu bia* 'deux fontaines'; Belsunzá, Belsunse, de *bels ahunze* 'chevre noire'; Uharté, Uhart 'maison situé entre deux eaux'<sup>27</sup>; La Laná, Lalane, de *lana* 'plaine, rase'; Sorhoéta, Cheraute, de *sorho* 'prairie'<sup>28</sup>. De même, de plusieurs autres bourgs ou villages dont yls sont seigneurs, comme Hirouriry, Trevilles, de *hirour hiry* 'trois villes' [...].

Etimologiez haratago, Bela saiatzen da HHko hitzak Zuberoako mintzora ekartzen. Horren adibiderik nabarmenena disertazioaren hondarrean dagoen hiztegi luzea da, Frantsesetik abiatuz Larramendiren Gipuzkoako mintzoko, Lapurdiko eta Zuberoako formak ematen baititu, beste zenbait hizkuntzetakoekin batera (Peillen, 1983a; Urkizu, 1992). Gero aztertu ditugun itzulpenean ere, ikusiko dugun bezala, bada Larramendiren hitzen moldaketarik. Hortik kanpo ere, andoaindarrak zientziarako hitzak nola eratu dituen azaltzen duenean, esate baterako, *Jaincoquindea*, *Eraqunduna* eta *Izarquindarra* bezalakoak ematen ditu (HH, I, xlviii-xlix). Belak, horiek jasotzeaz gain, hurrenez hurren *Jincokinzia*, *ekinkinzia* eta *izargunzia* dakartza (HB, III, 454), atzizki bera emanez Larramendik atzizki diferentekotzat dituenendako.

Azkenik, dialektoen arteko aldean erakusgarri, Larramendik HHn (I, cc[x]iv) Gipuzkoako euskaraz dakarren pasarte batetik zati bat kopiatu eta Zuberoako mintzora ekarri zuen Belak (HB, III, 482):

Eztanda badagic eré, guré eusquera ederra lembicio<sup>29</sup> bizcontzetatic<sup>30</sup> dec. Áracó Jaincoac manéatu ta issûri cituen ayetatic, ez besté hiscundeen naspillatic sortua. Eusquera dec Españian lenengo sortu<sup>31</sup> zàna, ta haren baster guztietan, era batean ta lugaro<sup>32</sup> chit hitzeguin zana.

[...]

---

26. *Gingoicoa* Belak berak asmatutako aldaera dateke, Larramendiren formekiko analogiaz.

27. Hitz honen ordez beste bat idatzi zen lehenik eta ezabatu, baina ezin izan dut irakurri.

28. Azken etimologia hau ezabaturik ageri da eskuizkribuan.

29. HHn *lembicico*. Hutsa da.

30. HHn *hizcúntzetatic*. Hutsa da.

31. HHn *sartu*.

32. HHn *luzaró*. Hutsa da.



Baderé jakin ezac gouré uskara egerra<sup>33</sup> lehén mintzoetaric déla. Gingoac eguina, harec eré guizoner<sup>34</sup> ereytatia<sup>35</sup>. Ez nahazteca zombaités elkiric. Uskara duc Ezpañaco barnian ta eremietan lehen mintzo izan déna, hanco eré bethiereco hitzéman sena.

Argi dago, beraz, Larramendik eta Belak elkar ezagutzeko parada izan zutela, eta jesulagunaren eskolak Pirinioak zeharkatu zituela, HHk euskarazko testuak hitz berriez hornitzetik haratago.

### 3. Seneka euskaraz: itzulpenaren soziologia

Nabaria denez, filosofia-irakaskizunak euskaraz ez dira ugariak, Eliza Katolikoaren dotrinan sartzen diren autoreez landara. Jadanik aipatu dudan Egiategiren *Filosofo uskaldunaren ekheia* lanaz gain, Iturriaga hernaniarrak Virgilioren egloga batzuk euskaratu zituen (Ruiz, 1995) eta, nik dakidala, XVIII-XIX. mendeetan ez dago besterik.

Horago aipatu dudan testuinguru apologetiko horretan txertatu behar dugu Belak egindako itzulpena<sup>36</sup>. Autoreak berak aitortzen duenez, itzulpenaren helburua euskararen beraren lakonismoa eta dotorezia agertzea da; ez, beraz, Senekaren filosofia euskaldunei hurbiltzea:

Je sens qu'yl faudroit un volume entier pour parler de toutes les regles de cette langue [basque]; mais comme cette prolixité ne seroit que très ennuyeuse pour ceux qui n'y prennent aucun intérêt, je donneray seulement quelques exemples du laconisme et de l'elegance du basque dans lequel je traduis quelques reflexions de Sénèque que j'ay trouvé sous la main (HB, III, 483).

Belak horretarako Seneka aukeratu izana ez bide da kasualitatea Bijueskaren aburuz. Izan ere, «Senekaren elokuzio sententziatsua estilo lakonikoaren eredu-tako bat zen» (Bijueska, 2011: 28). Haatik, Bijueskak dioenez, Larramendik ugaritasunaren gorazarre egin bide zuen, lakonismoaren kontra, Axular adibidetzat baliatuz. Hala balitz, Belak ez lioke horretan andoaindarrari jarraituko. Edonola ere, argi utzi behar da, batetik, Belaren itzulpena ez dela zuzenean Senekaren testu bat, moldaketa bat baizik (ik. § 4), eta bestetik, Bela Larramendiren ideien jarraitzaile dela: HHTik oparo edaten du zuberotarrak, Bijueskak berak elokuzioaren bertuteen artean aipatzen duen *puritas* edo hizkuntz garbitasunaren mesedetan<sup>37</sup>.

Testuan ikus daitekeenez (§ 5), lakonikoa da, egiazki, Belaren itzulpena. Lakonikogia ere eman dezake jatorrizko frantses testuarekin erkatuta, batzuetan

---

33. Ondoren *ederra* zuzendu du. Zuberoako euskaran kausitzen dugun forma palatala eman zuen lehenik, eta gero aldatu. Cf. *Orotariko Euskal Hiztegia* (Mixelena & Sarasola, 1987-2006, hemendik aurrera OEH) (s. v. edder).

34. Hitz hau geroago gehitu da.

35. Hitz honek zuzenketak ditu.

36. Belak bestelako testu teknikoak ere itzuli bide zituen, ekonomiaz eta nekazaritzaz (Etcheverry, 1948: 473), baina, nik dakidala, ez zaigu bakar bat ere ailegatu.

37. Are gehiago, Belak berak aitortzen digu are testu hori ez duela berariaz hautatu, eskura zuela («trouvé sous la main») baizik (HB, III, 483). Zenbateraino hori hala den ez dakit, baina argi dago zuberotarrak ez diola Seneka hautatu izanari garrantzi berezirik eman nahi.

nekez uler baitaiteke euskarazkoa erdal testua alboan izan gabe. Horri HHren emaria gehitu behar zaio, gainera. Baina, nire ustez, hori ez da itzulpenaren kalitatearen kontrako argudioa, eta lanaren helburuekin loturik dago zuzen-zuzenean, datozen lerroetan erakusten saiatuko naizenez.

Pym-ek (1998) adierazi bezala, itzulpengintzaren historiografia egiteko itzulpen baten xedea edo zergatia zein den hartu behar da kontuan eta itzulpenaren testuingurua ongi definitu, zeharo eragiten baitu horrek itzulpenaren forman eta, ondorioz, itzulpen horri buruz gaur egungo prisma dugun ikuspegian. Izan ere, jatorrizko hizkuntza ulertzen ez duenari testuak aditzera ematea baino gehiago da itzulpengintza: gizarte-jarduera ere bada (Ibarluzea, 2020a). Rubio Tobarrek edo Basnetek (*apud* Ibarluzea, 2020b: 318) itzulpenari egozten dizkieten funtzioen artean ditugu hizkuntzak aberastea eta goratzea, literatur generoak inportatzea, idazleen lantegi izatea eta jakintza zabaltzea. Are gehiago, itzultzea ekintza politiko gisa ere ikus daiteke, nazio-eraikuntzaren mesedetan.

Belak itzulpenean hartutako jokamoldeak zeharo egiten du bat itzulpenaren xedearekin. Esan bezala, mauletarraren helburua testu apologetiko bat sortzea da eta, paradoxikoa badirudi ere, ez da euskaldunei zuzendutako produkzioa, euskaraz ez dakitenei hizkuntza horren bertuteak erakustekoa baizik. Gauzak horrela, euskalduna ez denak frantses testua eta euskarazkoa alderatzeko lana hartuko balu, berehala ikusiko luke frantsesez esandakoa euskarara bihurtzeko hitz gutxiago behar direla eta hitz horiek, gainera, ez direla frantsesetiko edo hizkuntza erromantzeetatiko mailegu gardenak. Labur esanda, euskara lakonikoa eta garbia dela ikusteko, irakurleak itzulpenaren forman paratu behar du arreta, eta ez hainbeste edukian.

Beraz, jatorrizko hizkuntza dakiten baina xede-hizkuntza ulertzen ez dutenei zuzendutako itzulpengintza apologetiko berezi baten aitzinean gaude, Larramendiren zenbait lan ere barne har ditzakeena hain segur<sup>38</sup>. (Azpi)genero horrek leku eta testuinguru egokia behar du Ibarluzeak (2020b) aldarrikatzen duen «euskal literatura itzuliaren historiografia bateratuan».

#### 4. Jatorrizko testuaren gaineko jakingarriak

Belak *L'esprit de Senèque ou les plus belles pensées de ce grand philosophe* obraren pasarte batzuk hautatu zituen itzultzeko, oin-ohar batean aitortu bezala:

L'Esprit de Senèque ou les plus belles pensées de ce philosophe<sup>39</sup> enseignant l'art de bien vivre pour servir de guide a conduire nos passions, pratiquer la vertu, et de fuir les vices. Seconde partie a Paris chez la veuve f. Mauger au quatrieme pillier de la Grand Salle du Palais au Grand Cyrus 1704 (HB, III, 483).

Puget de la Serre-k (1595-1665) atondutako (baina sinatu gabeko) lan hau, Senekaren pentsamenduaren izpiritua edo funtsa biltzea xede duena, filosofoaren pentsamenduaren laburpen eta berrelaborazio gisakoa da, manu edo arauen gisara emana. Belak ez zuen, beraz, zuzenean Senekaren lanetara jo.

38. HH bera edo bestelako hiztegiak, funtsean, itzulpen-ariketa sendoak dira.

39. Liburuaren azalak egiazki «ce grand philosophe» dio.

1657an ikusi zuen lehenekoz argia liburu horrek, eta ondoren edizio ugari izan zituen, dudarik gabe Senekak XVII. mendearen bigarren erditik aurrera erdietsitako arrakastaren erakusgarri (Lojkin, 2019). Ikusi dugunez, Belak esku artean ibilitako edizioa 1704an Parisen F. Maugerren alargunarenean inprimatutakoa dugu<sup>40</sup>. Bigarren liburukia ibili zuen eskutan eta horretan Luziliori eskainitako epistola moraletatik ateratako ikaskizunak bildu zituen de la Serrek. Belak hirugarren epistola moraletik zortzigarrenean bitarteko pasarteak transkribatu eta euskaratu zituen. Bigarren liburuki hori hirugarren epistolarekin hasten baita, ematen du pasarte horiek —eta ez beste batzuk— aukeratzeko arrazoia hori izan daitekeela: hain zuzen, hor hasten dela liburukia. Edizioan ikusiko denez, Belak ez zituen jatorrizko testu inprimatuan heldu diren pasarte guzti-guztiak kopia eta euskaratu, eta testuak aurrera egin ahala gehiago dira autoreak kendutako zatiak. Ezin jakin, baina, zergatik. Menturaz zailtasunak ediren zituen itzultzeko tenorean, ala ez zitzazkion bereziki interesgarri begitandu. Ez daiteke ahatz, itzulpenaren helburua kontuan hartuta, jatorrizko testuarekiko leialtasunak ez zuela berebiziko garrantzirik.

## 5. Testuaren edizioa

Testua bi zutabetan dakar Belak, ezker frantsesa eta eskuin euskara, HBren hirugarren liburukiaren 483-486. orrialdeetan. Nik beste bi zutabe gaineratu ditut: lau denera. Lehenean jatorrizko testu inprimatuaren transkripzioa gaineratu dut, Belak hartarik egindako transkripzioa eman bigarrenik, Belaren euskal itzulpena gero, eta nik neuk gaur egungo ortografiara bihurtutako bertsioa buruenik, azalpenen laguntzaz irakurleak testua aisago uler dezan.

Testu inprimatua bere horretan eman dut, ezer aldatu gabe<sup>41</sup>. Frantseseko transkripzioan letra larriak eta hitzen banaketa eguneratu ditut. Euskarazko itzulpenean, bilakabide fonologikorik gertatu ez denetan hitzen banaketa eguneratzeaz gain, puntuazioa ere gaurkotu dut<sup>42</sup>. Buruenik, azken zutabean, gaur egungo ortografia-eta ortotipografia-arauetara bihurtu dut euskal testua<sup>43</sup>, baita hitzak gaur egungo moldean banatu ere, are bilkurak aldaketa fonologikoak eragin dituenean, aldatetok deseginez eta galdutako hotsak berrezarrit (adibidez, *eztüt* > *ez düt*, *ellitiro* > *ez litiro*). Bestalde, ozen ondoko txistukariak afrikatutzat jo ditut, Belak hori grafikoki islatzen ez badu ere. Orobat, egun grafikoki markatzen ez diren sudurkariak eta ozenak ere ez dira islatu, Belaren sisteman horretarako baliabide batzuk izanik ere (ik. oin-oharretan). Jatorrizko <(i)ñ>-ak bere horretan atxiki ditut <in> bilakatu gabe, soinua palatala dela argi adierazteko. Jatorrizkoan ez dagoen ezer gehitu behar izan denean, parentesi karratuen artean gehitu da.

---

40. Lan honek, François Maugerren alargunarenean bakarrik, gutxienez zazpi argitalpen izan zituen (1690, 1700, 1701, 1704, 1708, 1709 eta 1711. urteetan).

41. Puntuazio-zeinuen aurreko espazioa gaur egungo frantsesaren arauen arabera eman dut, bai testu inprimatuan, bai Belaren transkripzioan.

42. Autoreak ez ditu <J> larriak eta <y> xeheak kaligrafikoki bereizten. Hemen, baina, bereizi egin ditut.

43. Grafia gaurkotzeko ez dut Zuberoako euskararen egungo idazkera estandarra baliatu (Coyos, 2002; Hainbaten artean, 2013), lan honetan garrantzikoak diren zenbait bilakabide fonologiko eta ezaugarri fonetiko saihesten baitira horretan.

Kasu guztietan < > zeinuen artean orrialde zenbakia eman dut. Oin-oharren bidez, ohar paleografikoak egin<sup>44</sup>, ilunak izan daitezkeen hitz eta pasarteak azaldu, eta zenbait iruzkin linguistiko eman ditut.

Testu inprimatua	Belaren transkripzioa frantsesez	Belaren itzulpena	Testua grafia gaurkotuan
<1> Il faut efre tout à foy, pour employer utilement le temps qui nous refte à <2>	<483> Yl faut etre tout a foy, pour employer utilement le tems qui nous	<483> Gouréki <sup>45</sup> izan ofsoki <sup>46</sup> behár guira <sup>47</sup> , azkén biziaren onzá igaraytecó. Jayérac,	Gureki izan osoki behar gira, azken biziaren ontsa igaraiteko.

44. Zuzenketak emateko egitura hau baliatu dut: forma akastuna] *forma zuzendua*.

45. Agerikoa denez, tiletek ez dute azentua markatzen Belaren idazkeran. Egiategik ere hala jokatzeko zuen, eta Peillenek (1983b: 11) «frantsesari ohituago direnek silaba sudur-otsa eman ez dezaten [...] edo “e” muturik ez dadin irakur» egiten zuela dio (baina arazoetarako, ik. Padilla, 2017: 60). Horrek Belaren tilet batzuk azal ditzake, baina ez denak.

46. Ortografian Bela ez zitzaizen Larramendiren irizpideei lotu (ik. Urgell, 2018: 608). Salbuespen bakan batzuekin, Belak <k> hobesten du <qu> digrafoaren ordez. Honetan bat egiten du Egiategirekin (Peillen, 1983b: 11), baina ez Larramendirekin (ik. Pagola, 1992: 261). Urgellek (2018: 610) Duhalde lapurtarra du berrikuntza honetan aitzindari, baina Belapeirek XVII. mendearen hondarrean bazerabilen (Agirre, 2001: 318 hh.), eta segur aski Egiategi eta Bela ere aitzinatu zitzaizkion. Txistukariak adierazteko tenorean, Belaren sisteman ez dago <ç>, <tç> eta <tc> bezalakorik. Bere sisteman, afrikatuen kasuan, apikarirako <tz> ematen du, eta <z> ozen ondoko kasuren batean, <sch> sabaikarirako, eta <tz> bizkarkarirako. Azken horretan, halere, badira <z> batzuk ozen ondoan, eta are testuinguru horretatik kanpo ere, aditz-izenetan. Frikarietan, <s> dago apikarirako, eta <ss> bokalen artean, ahoskera ahostuna saihesteko (ik. Agirre, 2001; § 4.4.2; Padilla, 2017: § 2.4.1), baina <z> dugu Larramendiren hiztegitik hartutako bi adibidetan (*ezcagueyá* eta *ezkélétarzuná*) herskari aurretik, eta grafema hori bera dago *esdeuzki* eta *deuzétarát* hitzetan, menturaz soinu ahostuna markatzeko. Frikari sabaikarirako <sc> eta <sch> ditugu, eta bizkarkariarekin nahasmen handiagoa dago: hitz-amaieran <s> ematen du, baita hitz-hasieran ere, salbu <e> baten aurretik; testuinguru horretan, <s>-z gain, <z> ere badago, eta <c> ere bai, zer galdetzailean eta horretatik eratorritako hitzetan. Gainerakoan <z> ageri da, salbuespen batzuekin: *defsan* eta *burfaguiaç* daude, baina *ezaguterasten* eta *-tarzun*; <i> baten aitzinetik <z> eman ohi du, baina badira *bici* ~ *biziaren* bezalako txandaketak ere. Herskari aurrean denetarik dugu *ezpeitu* ~ *espeytu* eta *eztu* ~ *estié* bezalako txandaketak kasu, baita *azkén* ~ *gueroscoa* bezalakoak, azken hauetan, menturaz, morfema-mugan direlako. Bestalde, Belak ez dio Larramendiren <h>-aren kontrako iritzari men egiten, ezta <ou> digrafoa baztertzeko nahari ere, bistan denez, bere hizkeran beharrezkoak direlako. Pagolak (1992) uste du Larramendik ez zuela Zuberoako euskara ezagutu, eta horregatik ageri dela horrelakoen kontra. Dena dela, HHn horren nabaria ez bada ere, *Corografía* atondu zuenean Zuberoako testuak eskutan izan zituen (Urgell, 1992: 233), eta orain badakigu, gainera, Larramendik eta Belak elkar ezagutu zuela. MHB eta HB erkatuta, eta are HBn dauden euskarazko hitz eta pasarteak eta hemen aztergai dudana konparatuta, Belak ohitura ortografikoak aldatu zituela ikus daiteke, eta sistematizazioranzko joera bat antzeman dakioke. Ez da hau, baina, horretan gehiago sakontzeko lekua.

47. Hitz-ordenari begira, hobeki ulertzen da *Gureki izan behar gira osoki*. Aurrerago beste adibide batzuetan ikusiko denez, Belak aditza esaldi-amaierara eramateko joera du, foku sintaktikoari erreparatu gabe. Aditzaren gibeleratze sistematiko horren atzean ez dirudi Larramendiren eragina dagoenik; izan ere, andoaindarrak ez bide zuen perpaus nagusian aditza hondarrean emateko inongo jarraibide zuzenik eman. Are gehiago, adibide frankotan foku sintaktikoa are aditzaren gibeletik ematen du Larramendik (Hidalgo, 1995: II, § 3.5). Egia esan, ez dakit honetan nori edo inori jarraitzen dion, Oihenartek, Urtek eta Harrietek, esaterako, ez baitute hala jokatzeko. Kardaberatzen testuetara jo beharko dugu halako aditzaren gibeleratze sistematikoa aurkitzeko (Hidalgo, 1995: III; Urgell, 2018: 626), baina ez dut Kardaberatz eta Bela lotzeko froga ukigarriak.

vivre, les paffions qui nous maiftrifient nous en déroberent la plus grande partie, & l'incertain qui nous demeure, fe paffe fans y penfer.	reste à vivre. Les pafsions qui nous maitrifient nous en déroberent la plus grande partie, et l'incertain qui nous demeure, fe pafse fans y penfer.	gouré burfaguiac, demboraren éré jaliac diradé, ta egoïten zeicun icaldeza gogo emanic bague badoa <sup>48</sup> .	Jaierak <sup>49</sup> , gure bürzagiak, denboraren ere jaliak <sup>50</sup> dirade <sup>51</sup> , ta <sup>52</sup> egoïten <sup>53</sup> zeikün ikaldeza <sup>54</sup> gogo emanik <sup>55</sup> bage <sup>56</sup> badoa.
Tout le monde cherit la vie, & tout le monde en eft fi confufément prodigue, qu'à moins d'avoir des cheveux blancs, on ne feroit jamais reflexion fur l'âge qu'on a.	Tout le monde cherit la vie, et tout le monde en eft fi confusément prodigue, qu'a moins d'avoir des cheveux blancs, on ne feroit jamais reflexion fur l'âge qu'on a.	Norc eztu biziá mayté, ta norc eztu barreÿatzén, adiná bilhó chouriec salhartio?	Nork ez dü bizia maite, ta nork ez dü barreiatzen <sup>57</sup> , adina bilho xuriek salha <sup>58</sup> artio?
Il feroit neceffaire que les Dieux euffent fait une balance où l'on puft pefer le tems,	Yl feroit necefsaire que les dieux eufsent fait une balance où l'on pût	Gincoéc péfu bat eguin behár lukété, soiñtan <sup>59</sup> , balioüa ezariric <sup>60</sup> , démbora	Jinkoek pezü <sup>61</sup> bat egin behar lükete zoiñtan, baliua ezarririk, denbora

48. Belak kasu batzuetan <oa> ematen du argi eta garbi. Sasoi hartan Zuberoan *oa* > *ua* bilakabidea aspaldi gauzaturik zegoen (ik. Padilla, 2017) eta, beraz, <oua> bezalako zerbait espero litzateke, baina, ortografia kultistaren ondorioz-edo, Belak ez du bilakabide horren arrastorik, salbuespen bakar batekin: *balioüa* ~ *balioa* txandaketa, pasarte batean.

49. *Jaierak*. Cf. HH (II, 9) *jayera* 'inclinación, afecto, devoción'.

50. *Jaliak* 'jaleak'.

51. Belak *dira* eta *dirade*, biak darabiltza, lehena bakanago.

52. Belak sistematikoki darabil *ta*, Zuberoan ohikoa ez izanik ere, eta horretan bat egiten du Egiategirekin (Peillen, 1983b: 10). Are gehiago, 2. atalean transkribatu dudana Belak HHTik hartutako euskarazko pasarteetan *eta* ematen du Larramendik, baina mauletarrak *ta* kopiatu. Testua Zuberoako mintzora moldatzean ere, *ta* eman du Belak.

53. *Egoïten* 'irauten, gelditzen'. Cf. OEH (s. v. egon, I).

54. *Ikaldeza*. Cf. HH (II, 9) *icaldeza* 'incertidumbre'.

55. *Gogo emanik* 'pentsatu, ohartu'. Cf. OEH (s. v. gogo eman, a).

56. Belak sistematikoki darabil *bage*, eta ez *gabe*. Peillenek (1983b: 17) Larramendiren itzala ikusten zuen forma honen giblean Egiategiren testuetan. OEHk (s.v. gabe) dio *bage* Zuberoan aurki daitekeela, bakan bada ere: ematen dituen adibideak denak dira Larramendiren hiztegiaren ondokoak. Hala ere, badira *bage* formaren adibideak Leizarragaren edo Etxepareren testuetan, esaterako, baita Tartas zuberotararen testuetan ere (cf. *Euskal Klasikoen Corpusa*; Izengabea, 2013).

57. *Barreiatzen* 'alferrik galtzen'. Cf. OEH (s. v. barreiatu, 1).

58. *Salha* 'salatu'.

59. *soiñtan*]

60. Zenbait kasutan, Belak <r> ematen du gaur egungo ortografian <rr> emanen genukeena. Ez dut akastzat, eta ez ditut halakoak zuzendu, sasoi hartan bi bokalen arteko dardarkariaren ahoskera zein zen jakitea ez baita erraza. Dardarkariaren eta ttak-aren arteko neutralizazioak ohikoak izan dira, berriki arte bederen (ik. Etchebest, 2017).

61. *Pezü* 'balantza'. Cf. OEH (s. v. pezu, 3).

après avoir donné prix à fes momens, <3> afin que la valeur en fuft connuë, chacun vieillit à fa façon, fans confiderer ni le chemin qu'il tient, ni quelle heure il eft à fon horloge.	péfer le tems, après avoir donné prix a fes momens, afin que la valeur en fût connuë, chacun vieillit a fa façon, fans confiderer ni le chemin qu'yl tient, ni quelle heure yl eft a fon orloge.	pifu leitakian; amorégatic balioá aguér ladin, nor béré moldés bizi da, ez cer bidé hartzen dian es cer orén béré orduán dén arrancuratic bagué.	pisü <sup>62</sup> leitakian; amoregatic balioa <sup>63</sup> ager ladin, nor bere moldez bizi da, ez zer bide hartzen dian <sup>64</sup> ez zer oren bere orduan <sup>65</sup> den <sup>66</sup> arranküraric bage.
Le tems nous furprend toujurs, quoiqu'il foit toujurs prefent ; d'où vient que le plus ménagers de fes heures fe fouviennent à la mort inutilement d'avoir oublié une partie de ce qu'ils avoient à faire.	Le tems nous furprend toujours, quoyqu'il foit toujours prefent ; d'où vient que le plus ménagers de fes heures fe fouviennent a la mort inutilement d'avoir oublié une partie de ce qu'yls avoient a faire.	Démborá aýtzinian ukhenic éré, bethi icitzen gutu; hartacos harén gógózaliénac <sup>67</sup> , hilzian, cerbait anhatzés esdeuzki óhárt diradé.	Denbora aitzinian úkhenic ere, bethi izitzen gütü; hartakoz, haren gogozalienak <sup>68</sup> , hiltzian, zerbait ahatez <sup>69</sup> ezdeüski <sup>70</sup> ohart dirade <sup>71</sup> .

62. Ohar bedi *pezu* eta *pisu* aldaerak ageri direla hemen, lehena gailuarendako eta bigarrena magnitudarendako. Duda egin daiteke ese luzearen ordez <s> edo <z> eman behar den, eta lehenarendako <z> hobetsi dut, tradizioari begiratura (cf. OEH). Bigarren aldaeraren gibelean Larramendiren hiztegia egon daiteke. Cf. HH (II, 167-168) *pesar* eta *peso*.

63. Ohar bedi *prix* itzultzeko *balioa* agertzen dela, eta *valeur* itzultzeko, aldiz, *balioa*. Susmoa dut bigarrenerako Larramendiren hiztegiara jo duela autoreak, eta hark emandako aldaerari atxiki zaiola. Cf. HH (II, 362) *balioa* 'valor, estimación, precio'.

64. *Dian* 'duen'.

65. *Ordu* 'ordulari'. Ohar bedi *oren* eta *ordu* hitzen arteko alde semantikoa, lehena denbora unitatearendako eta bigarrena gailuarendako. Ez dut bereizketa horren berririk inon aurkitu; bai, haatik, Lapurdin *oren* erabili izan dela erlojua izendatzeko (cf. OEH s. v. *oren*), eta inoiz *ordu* ere baliatu izan dela esanahi horrekin, Baztanen adibidez, Azkuek F. Seguraren hitzak bere eginez jaso bezala (cf. OEH s. v. *ordu*). Kontrakoa ere aspaldi dago dokumentatua; hots, *erloju* baliatzea denbora unitateari deitzeko (Lakarra, 1983: 63-65).

66. Hitz-ordenari begira, hobeki ulertzen da *ez zer oren den bere orduan*.

67. gógózaliénac] *gógózaliénac*. Hitz honek absolutiboan behar du.

68. *Gogozalienak* 'arduratsuenak, ekonomizatzaileenak'. Hots, denboraz gehien arduratzen direnak, denbora hobekien aprobetxatzen dutenak.

69. *Ahatez* 'ahazteaz, ahaztu izanaz'; aditz-izena da. Belak bokal baten edo hasperen baten eta inguruko bokalen sudurkaritasuna adierazteko <n> idazten du kasu batzuetan. Hala ageri dira, adibidez, *pouvoir*: *anhala* edo *oublier*: *anhatx* oraindik argitaragabe dirauen Belaren hiztegitxoan (ik. Santazilia, 2020). Eskuizkribu honetan heldu den hiztegian ere *anhatze*, *anhatia*, *anharra*, *anhalque*, *tanhanlla*, eta *lhintzaria* bezalakoak ditugu (Peillen, 1983a). Egiategik ere baditu halakoak (Peillen, 1983b: 11), baina ez da beste inongo testutan halakorik aurkitzen (Padilla, 2017: 87). Grafia gaurkotuan, halere, ez ditut sudurkariok islatu, kutsu etimologikoko ortografia egon baitaiteke forma hauetako batzuen gibelean.

70. *Ezdeüski* 'alferrik'.

71. *Ohart dirade* 'gogoratzen dira'. Cf. OEH (s. v. *ohar* izan). *-t-dun* aldaera ere ageri da autore batzuegan (*ohart*), eta zuberotarrek erabilera iragankorra ere badute (*ohart úkhen*). Baliteke ergatiboaren erabilera okerraren atzean forma iragankor hori egotea.

On ne doit pas s'étonner si l'on ne peut comprendre l'Eternité ; le <4> temps toujours present eft inconcevable ; cette mesure de toutes choses ne le peut mesurer : ce compas si juste eft déréglé pour nous, & cette regle infaillible devient inutile quand nous voulons élever nostre esprit jusques à la connoissance.	On ne doit pas s'étonner si l'on ne peut comprendre l'eternité ; le tems toujours present eft inconcevable ; cette mesure de toutes choses ne le peut mesurer : ce compas <484> si juste eft déréglé pour nous, et cette regle infaillible devient inutile quand nous voulons élever nôtre esprit a la connoissance.	Bethiérécoá inthélégatzen eztiná <sup>72</sup> hárrituric eztágólá; aýtzinian dugun démbórá estaité eskida; zéhe handi <sup>73</sup> hori estaitéké neirtú: cianquida schuchén hori gourétáco okhér dago, ta <484> deuzetarát ádrá lerdén hori doúá <sup>74</sup> , gogo-hari utzultzén báguira.	Bethierekoa <sup>75</sup> inthelegatzen <sup>76</sup> ez dina <sup>77</sup> harritúrik ez dagola <sup>78</sup> ; aitzinian dūgūn denbora ez daite <sup>79</sup> eskida <sup>80</sup> : zehe <sup>81</sup> handi hori ez daiteke neirtú: ziakida <sup>82</sup> xūxen hori guretako okher dago, ta deūsetarat <sup>83</sup> adra <sup>84</sup> lerden hori dua <sup>85</sup> , gogo <sup>86</sup> hari ūtzultzen bagira <sup>87</sup> .
---	--	--	---

72. eztinác] *eztiná*. Hitz honek absolutiboan behar du.

73. Hitz hau geroago gehitu du Belak, gaineko lerroartean.

74. Lehendabizi *doúá deuzetarát* idatzi zuen eta gero *deuzetarát* ezabatu, gorago sartua baitzuen, ez errepikatzeko.

75. *Bethierekoa* 'eternitate'. Izena da, ez adjektiboa.

76. *Inthelegatzen* 'entelegatzen, konprenitzen, ulertzen'.

77. *Dina* 'duena'.

78. *Ez dagola* 'ez bedi egon'. Aginterazkoa da adizki trinko hau.

79. *Daite* 'daiteke'.

80. Hitz hau iluna zait, are frantsesezko *inconcevable* hitzaren ordaintzat. Esaldi honetan adierazi nahi da orainaldi betiereko bat pentsaezina, ezinezkoa dela. Formari begira Larramendiren *asquidatu* 'satisfacer, pagar enteramente' (HH, II, 275) edo 'cumplir con alguno' (HH, I, 274) aditzaren oinarekin loturik egon daiteke, baina esanahiak ez du laguntzen, eta hemen *e-* dugu hitz-hasieran. Bestalde, Larramendik *escudatu* 'defender' ere badu eta, horrekin loturik balego, 'defendaezina' edo 'onartezina' esan lezake.

81. Kasu honetan *mesure* 'neurri' hitzaren ordain gisa, neurri unitate zehatz bat eman du Belak: zehea (cf. OEH s. v. zehe, II).

82. *Ziakida*. Cf. HH (I, 213) *cianquida* 'compás, instrumento'. Belak bokal baten sudurkaritasuna adierazteko <n> idazten du kasu batzuetan. Oraingoan, halere, ez dago garbi zergatik idatzi duen <n> hori, Larramendiren hitza izanik, honek ez baitakar.

83. *Deūsetarat* [...] *doa* 'alferrikakoa da'. Cf. OEH (s. v. ezdeus, II).

84. *Adra*. Cf. HH (II, 237) *adra* 'regla'.

85. Hitz-ordenari begira, hobeki ulertzen da *ta deūsetarat dua adra lerden hori*.

86. Oso garbi ez badago ere, testuinguru honetan 'asmo, ideia, helburu' esan nahi duela uste dut. Cf. OEH (s. v. gogo, 2-3).

87. Hau Nor-Nori egitura bat da eta 'hari itzultzen bagatzaizkio' esan nahi du, nahiz eta aditzak datibo-komunztadura falta duen. Testu osoan zehar ohikoa da datibo-komunztadurarik eza, eta hizkeran ere ohiko fenomeno da, jadanik Gèzèc (1873) berak adierazi bezala.

Le temps paffé a beau fe rendre prefont à nôtre memoire, le prefont porte ce nom dans nôtre imagination, & l'avenir remplit nôtre esprit de fes vaines idées ; toutes <5> ces veritez que l'on conçoit ne laiffe pas d'efre inconcevables, puisqu'elles ne subfifent que par la force de nôtre raifonnement	Le tems pafsé a beau fe rendre prefont a nôtre memoire, le present porte ce nom dans nôtre imagination, et l'avenir remplit nôtre esprit de fes vaines idées ; toutes ces veritez que l'on conçoit ne laifent pas d'etre inconcevables, puisqu'elles ne subfifent que par la force de nôtre raifonnement	Démbórá igarana gouré gogoan izanic éré, oraicoa hobéki dágó, ta gueroacoac hitzeman ederrenés béthétzén gutu; eguiá horic oro inhorc inthéllégá élitiro, cérén éta ezipýtié gouré hitzaldiarén indarra beizic <sup>88</sup> .	Denbora igarana gure gogoan izanik ere, oraikoa hobekia dago, ta gerokoak hitzeman <sup>89</sup> ederrenez bethetzen gütü; egia horik oro ihork <sup>90</sup> inthelega ez litiro <sup>91</sup> , zeren eta ez beitie <sup>92</sup> gure hitzaldiairen <sup>93</sup> indarra beizik <sup>94</sup> .
Ceux qui veulent recouvrer le temps qu'ils ont perdu, le font repaffer fi fouvent dans leur memoire, qu'ils connoiffent le mauvais ufage qu'ils en ont fait ; & comme cette connoiffance les inftruit, & pour le prefont & pour l'avenir, ils s'écartent	Ceux qui veulent recouvrer le tems qu'ils ont perdu, le font repafser fi fouvent dans leur memoire, qu'ils connoiffent le mauvais ufage qu'ils en ont fait ; et comme cette connoiffance les instruit, et pour le prefont	Vtzharté galdia coberatu nahi dinac ardura burian igaranés, galdu dila <sup>95</sup> ohart dá; jakin horés, oraicoa gueroscoa éré jakinic, bidé gaistoá utziric, hartzén du bestéric.	Ütsarte <sup>96</sup> galdia koberatü <sup>97</sup> nahi dinak <sup>98</sup> ardüra <sup>99</sup> bürían igaranez, <sup>100</sup> galdü dila <sup>101</sup> ohart da <sup>102</sup> ; jakin <sup>103</sup> horrez, oraikoa [ta] <sup>104</sup> gerozkoo ere jakinik, bide gaiztoa ütziric, hartzen dü besterik.

88. Jatorrian *gouré hitzaldiarén baiziq indarra* idatzi zen, eta gero *baiziq* ezabatu, esaldi-hondarrean *beizic* gehituz. Gainerako adibideetan, beti <ai> eman du, eta ez <ei>.

89. *Hitzeman* 'agintza, promesa'. Hemen izena da.

90. Bokala sudurkaria da. Cf. 68. oin-oharra.

91. *Litiro* 'litzake'; \*iron aditzetiko forma.

92. *Beitie* 'baitute'.

93. *Hitzaldiairen*. Cf. HH (II, 224) *hitzaldia* 'razonamiento'.

94. Hots, egia horiek geure buruan baizik ez direla existitzen.

95. Hitz hau eta aurrekoa geroago gehitu dira, gaineko lerroartean.

96. *Ütsarte* 'denbora librea, atsedernaldia'. Cf. OEH (s. v. hutsarte, 2).

97. *Koberatü* 'berreskuratu'. Cf. OEH (s. v. kobratu, 1).

98. *Dinak* 'duenak'.

99. *Ardüra* 'etengabe'. Cf. OEH (s. v. 2 ardura, 1).

100. *Bürían igaranez* 'pentsatuz, buruan bueltak emanez'. Cf. OEH (s. v. buruan iragan).

101. *Diala* 'duela'.

102. Cf. 70. oin-oharra.

103. *Jakin* 'ezagutza, jakitate'. Hemen izena da. Cf. OEH (s. v. jakin, III).

104. Belak batzuetan emendiozko juntagailua saihesten du. Ez dut akastzat, behin baino gehiagotan egiten duelako, baina ulergarritasunaren mesedetan, halakoetan parentesi karratuen artean gaineratu dut. *Ta* hobetsi dut *eta* bainoago, autorearen *usus scribendiari* jarraikiz.



du mauvais chemin qu'ils ont tenu, <6> & prennēt d'autres voies.	et pour l'avenir, yls s'ecartent du mauvais chemin qu'ils ont tenu, et prennent d'autres voyes.		
Celui qui s'étudie luy-même ne fçauroit employer le tems plus utilement.	Celuy qui s'étudie luy même ne fçauroit employer plus utilement le tems.	Bérbéra ézagutu nahi dinác eliro démborá hobéki igarán.	Berbera <sup>105</sup> ezagütü nahi dinak <sup>106</sup> ez liro <sup>107</sup> denbora hobeki igaran.
Il faut apprendre une Philofophie qui n'enfeigne pas feulement à raifonner, mais encore à obéir à la raifon.			
Tous les livres font bons quand ils nous apprennent quelque chofe d'utile : ceux qui paffent leur vie à lire des Romans, éternifent leur mémoire dans les fables.	Tous les livres font bons quand yls nous aprenent quelque chofe d'utile : ceux qui pafent la vie a lire des Romans, eternifent leur memoire dans les fables.	Liburu guziác cérbait hounic ikhastén diénác hon dirádé <sup>108</sup> : erderazteguiétan <sup>109</sup> bizia igaraytén diénec <sup>110</sup> guézurretan béthiéréco <sup>111</sup> ezartén dié gogoa.	Libürü güziak zerbait hunik ikhasten <sup>112</sup> dienak <sup>113</sup> hon dirade: erderaztegiétan <sup>114</sup> bizia igaraiten dienek gezurretan bethiereko <sup>115</sup> ezarten die <sup>116</sup> gogoa <sup>117</sup> .

105. *Berbera* 'norbera, nork bere burua'. Esanahi bihurkaria du hemen.

106. *Dinak* 'duenak'.

107. *Liro* 'lezake'; \**iron* aditzetiko forma.

108. guziéc] *guziác*; diénéc] *diénác*. Perpaus hau ergatiboan eman du Belak, baina absolutiboan behar du. Tileta atxiki dut, *usus scribendiari* jarraikiz.

109. <t> letrak makiltxoia falta du eta <l> ematen du, baina nire ustez, hitz honek hala behar du, -*tegi* atzizkia baitukegu hemen. Cf. 114. oin-oharra.

110. diénác] *diénec*. Perpaus honek ergatiboan behar du.

111. Hitz hau geroago gehitu da, esaldi-bukaeran *béthiérécos* ezabatu ondoren. Duda egin daiteke, bada, hitz honen amaieran -s falta den. OEHn biak agertzen dira eta <s> duen forma da Zuberoan ageri dena; hala ere, ez dago arrazoirik <s> gabeko forma akatsa dela baieztatzeko, are Belak berak eskuizkribu honetan berean *bethiereco* dakarrenean beste pasarte batean (HB, III, 482).

112. *Ikhasten* 'irakasten, ikasaztzen'. Cf. OEH (s. v. ikasi, 3).

113. *Dienak* 'dutenak'.

114. *Erderaztegiétan*. Cf. HH (II, 260) *erderateguia* 'romancero, libro'.

115. *Bethiereko* 'betiko, betirako'. Hemen adberbioa da.

116. *Die* 'dute'.

117. Hitz-ordenari begira, hobeki ulertzen da *bizia erderaztegiétan igaraiten dienek gezurretan ezarten die gogoa bethiereko*.

Encore que la Terre <7> foit une école pour apprendre à vivre & à mourir, la plus grande partie du monde y vit & meurt fans fçavoir ce que c'eft de la vie, ni de la mort.	Encore que la terre foit une ecole pour apprendre a vivre et a mourir, la plus grande partie du monde y vit et meurt fans fçavoir ce que c'eft de la vie, ni de la mort.	Lurrá bicizéco, hilzéco ikhafsalia badá éré <sup>118</sup> , alabadéré, bicizén, hilzén éré guira, cér dén biciá, cér hilá jakin bague.	Lürra bizitzeko [ta] hiltzeko ikhasalia <sup>119</sup> bada ere, alabadere <sup>120</sup> , bizitzen [ta] hiltzen ere gira, zer den bizia [ta] zer hila <sup>121</sup> jakin bage.
Encore que la pauvreté foit fu éfroyable, qu'on balance fon horreur avec celle de la mort ; comme la neceffité adoucit celle-cy, puifqu'elle eft inévitable, la patience foulage l'autre, puifqu'elle la couronne toujurs.	<485> Encore que la pauvreté foit effroyable, qu'on balance fon horreur avec celle de la mort ; comme la neceffité adoucit celle cy, puis qu'elle eft inevitable, la patience foulage l'autre, puis qu'elle la couronne toujours.	<485> Ezcagueyá <sup>122</sup> izanic éré harrigárrí <sup>123</sup> , hilá bézéiñ ikhárágárrí, nola béhárác eztitzén béitu honen gitiá, hálá ofartiác urgaisten ta coroátzén du bestiaren ezkelétarzuná.	Eskageia <sup>124</sup> izanik ere harrigarri, hila <sup>125</sup> bezeiñ ikaragarri, nola beharrak eztitzen beitu honen jitia <sup>126</sup> , hala osartiak <sup>127</sup> ürgaizten ta koroatzén dü bestiaren eskeletarzüna <sup>128</sup> .

118. Lehendabizi, *hilzéco éré ikhafsalia* idatzi zuen; gero *éré* ezabatu, eta hemen ezarri zuen.

119. Hitz hau iluna da. Baliteke *ikhas + zale* izatea. Izena da, edonola ere. Larramendik *icasola* 'escuela de niños' dakar hiztegian (HH, I, 341), baina hitz honekiko lotura ere ez da garbia.

120. *Alabadere* 'alabaina'. Cf. OEH (s. v. alabadere, 1).

121. *Hila* 'heriotza'. Hemen izena da. Cf. OEH (s. v. hil, II, 2). Eskuizkribu berean, (III, 442) etimologia batzuk dakartza Belak eta horietan *hyla* eman zuen lehenik, eta gero *herioa* zuzendu.

122. Ezcagueyá] *Ezcagueyá*. Hitz hau HHko *efcagaya* 'pobreza' (II, 179) sarrerarekin lotua dagoela uste dut.

123. harigárrí] *harrigárrí*.

124. Cf. 122. oin-oharra.

125. *Hila* 'heriotza'. Cf. 121. oin-oharra.

126. Hots, [heriotzaren] etortzea, etorrera.

127. *Osartiak*. Cf. HH (II, 134) *osarte* 'paciencia'.

128. *Eskele* aldaera, Larramendik hiztegian ekartzeaz gain (HH, II, 178), Larramendi ondoko Zuberoako hainbat autorengan aurki daiteke, Egiaterirengan kasu (Cf. OEH s. v. eskale), eta Belak berak eskuizkribuko hiztegian *eskeletu* dakar (Peillen, 1983a). *Eskeletasun* ere Duvoisinek, Azkuek eta Harrietek beren hiztegiatan bildu zuten. Peillenek (1983b: 17) Larramendiren eraginpekotzat du.

On ne fçauroit faire un ami qu'avec le tems ; il en faut beaucoup pour <8> le connoître ; mais quelque fidele qu'il foit, on ne doit eftre confident que de foy-même, dans des fecrets importants, puifque le dommage qu'on peut encourir eft fouvent irreparable. <i>Epist. 3.</i>	On ne fçauroit faire un amy qu'avec le tems ; yl en faut beaucoup pour le connoitre ; mais quelque fidèle qu'il foit, on ne doit etre confident que de foy même, dans des fecrets importants ; puisque le dommage qu'on peut encourir eft fouvent irréparable.	Démborác baizic aniskidé bát eztu eraguitén; luziégo batec du ezaguterasten <sup>129</sup> ; bena foiñ léyal dén, berari nor berme dadin eguitéco ifchilicoétan, cérén dañúa ardurá galgárrí beítá.	Denborak baizik aiskide <sup>130</sup> bat ez dü eragiten <sup>131</sup> ; lüziego batek <sup>132</sup> dü ezagüterazten; bena zoiñ leial den <sup>133</sup> , berari nor berme <sup>134</sup> dadin <sup>135</sup> egiteko ixilikoetan, zeren dañua ardüra <sup>136</sup> galgarri beita.
Il y en a beaucoup qui portent le nom d'ami, mais on en trouve fort peu qui	Yl y en a beaucoup qui portent le nom d'amy, mais on en trouve fort peu qui	Hanischék aniskidén izéná, béná gutiéc eguiáfki ekhártén dié; hojéc hain békhant n	Hanitxek aiskiden izena, bena gütiek <sup>137</sup> egiazki ekharten <sup>138</sup> die <sup>139</sup> ;

129. ezaguzerasten] *ezaguterasten*. Hitz hau iluna da. Aurreko <z>-k eragindako errata izan daiteke, *ezaguterasten* formaren ordez, hori baita Zuberoan espero dena. Gainera, ez OEHK, ez *Euskal Klasikoen Corpusak* (Izengabea, 2013) ez *Corpus Historikoak* (Sarasola, Salaburu eta Landa, 2019) ez dute aldaera hori jasotzen. Hala ere, izen gisa, *ezagütze* ere badago Zuberoan (cf. OEH), nahiz eta gauza jakina den forma arazleak aditz (oin)en gainean eraikitzen direla.

130. OEHK hitz honetarako dakartzan aldaeren artean ez dago <n>-dunik. Haatik, ez dut uste errata den; izan ere, aldaera bera darabil hurrengo paragrafoetan, baita eskuizkribu honetan bertan Belak atondutako hiztegian ere (Peillen, 1983a), eta argitaragabe dirauen horretan ere bai (Santazilia, 2020). Aitzitik, Belak grafema hori erabili ohi du bokalen sudurkaritasuna adierazteko (cf. 68. oin-oharra), eta nago oraingoan ere halako zerbait islatu nahi izan duela; horregatik ez dut gaur egungo grafian <n>-rik ezarri, nahiz eta <d> gabeko formak ez diren aurkitzen Zuberoako testuetan. Bokala sudurkaria izateak *adiskide* hitzarendako proposatu den etimologiaren alde (<\*adinez kide) egiten du (Schuchardt, 1923; Lacombe, 1935; Lafon, 1935, 1936; Michelena, 1977), baina arrazoia dute Agudek eta Tovarrek (1988: 299) *adinide* bezalako aldaerak azaltzeko <n> horrek fortisa behar duela eta, beraz, bokal artean iraun. Baliteke Belak grafia etimologikoa erabili izana, sudurkaria berrezarrit.

131. Hitz-ordenari begira, hobeki ulertzen da *eztü aiskide bat eragiten*.

132. Hots, [denbora] luzeago batek.

133. *Zoin leial den* egiturak adiera kontzesiboa du hemen: 'den leiala dela'.

134. *Berme* 'konfiantza izan'. Hemen aditz nagusia da. Ohikoa da datiboarekiko erabilera. Cf. OEH (s. v. bermatu, 1).

135. Hau Nor-Nori egitura bat da eta 'nor bere buruari berme dakion (dakiola)' esan nahi du, nahiz eta aditzak datibo-komunztadura falta duen. Agintera-zentzua du.

136. *Ardüra* 'maiz'. Cf. OEH (s. v. 2 ardura, 1).

137. Testuingurua mugagabea bada ere, forma mugatua eman du Belak. Erabilera mugatu horiek Axularrek edo Haranederrek badakartzate, besteak beste (cf. OEH s. v. gutxi, 3). Adibideak ikusita, zentzu plural eta partitiboa duela uste dut.

138. *Ekharten*. Cf. OEH (s. v. ekarri, I, 1) 'llevar (el nombre)'.

139. Hitz-ordenari begira, hobeki ulertzen da *Hanitxek aiskiden izena ekharten die, bena gütiek egiazki*.

Il foient dignes de cette qualité ; celle-cy eft auffi rare que l'autre fe rend commun.	foient dignes de cette qualite ; celle cy eft aufsy rare que l'autre fe rend commune.	nólá béstiac uzú dirádé.	hoiek hain bekhant nola bestiak üsü <sup>140</sup> dirade.
Il y en a qui manquent d'amitié plütoft que d'a- <9> mis : il faut fçavoir aimer pour en avoir beaucoup.	Yl y en a qui menquent d'amitié plutot que d'amys : yl faut fçavoir aimer pour en avoir beaucoup.	Badirá léhénago aniskidétarzunic ezis aniskidé baguéric dirénic. Maíte diáná <sup>141</sup> maité daitéké.	Badira lehenago aiskidetarzünik eziz <sup>142</sup> aiskide bagerik direnik. Maite diana <sup>143</sup> maite daiteke <sup>144, 145</sup> .
Celui qui s'occupe à un travail honneste, le met hors de prix, puisque la gloire qu'il en doit recevoir doit estre fa récompense.	Celuy qui l'occupe a un travail honnete, le met hors de prix, puisque la gloire qu'yl en doit recevoir doit estre fa recompense.	Lan édérrari lákét dénác <sup>146</sup> láná laĩdatzén du, cérén gitén féyón ohóriás ordainturic beýtago.	Lan ederrari laket denak <sup>147</sup> lana laidatzen <sup>148</sup> dü, zeren jiten zeion <sup>149</sup> ohoriaz ordaintürik <sup>150</sup> beitago.

140. *Üsü* 'maizko'. Kasu honetan adjektiboa da. Cf. OEH (s. v. usu, 1). HHk (II, 378) ere badakar adiera horretan.

141. *diánác* | *diáná*. Hitz honek absolutiboan behar du. Adibide gehiagotan ematen du Belak ergatiboa absolutiboaren lekuan.

142. *Eziz* 'ezi ez'. Ohikoa da Zuberoan, eta aldaera hori Belapeirek ere erabiltzen bide du. Cf. OEH (s. v. ezi ez).

143. *Diana* 'duena'. Belak *dina* eta *diana* baliatzen ditu testu honetan. Egun ere bi aldaerak ageri dira Zuberoan. Padillak (2017: 761-762) XVIII. mendean kokatzen du forma laburren sorrera, baina lehen erreferentzia grafikoak XVIII. mendearen hondarrean eta, batez ere, XIX.ean ageri direla dio. Honek hamarkada batzuk aurreratzen du azken data hori.

144. Adizki hau ez da ohikoa Zuberoako testuetan. Egiategik bederen erabiltzen du, baita XIX. mendeko autore zenbaitek ere, baina gainerakoan, *ahaldun* perifrasiuz gain, *diteke* edo *daite* ageri da (Belak azken hori du testu honetan berean). Baliteke forma honen gibelean Larramendiren edo bestelako autoreren baten eredia egotea. Edonola ere, forma hori *\*edin* aditzetikoa baino gehiago, *izanetikoa* izan daiteke ('dateke', euskara batuan). Gisa horretan, *maite* ez litzateke aditz-oina, adjektiboa baizik. Badira halako adibide susmagarri gehiago testuan: cf. 154. eta 159. oin-oharrak. Ik. forma hauen funtzioez Padilla (2017: 606 hh.).

145. Itzulpen aski librea da, baina jatorrizkoan ere ez dago garbi *beaucoup* horrek lagunei edo laguntasunari egiten dion erreferentzia. Zentzuari begira, bigarrenarekin lotua dirudi.

146. *dénác* | *dénác*. Hitz honek ergatiboan behar du. Beste adibide batzuetan Belak ergatiboa ematen du absolutiboa behar den lekuan.

147. Ohar bedi, beste behin, datibo-komunztadurarik eza.

148. *Laidatzen* 'laudatzen'.

149. Adizki hau iluna da. Nor-Nori saileko orainaldiko *zaio* edo iraganeko *zeion* 'zitzaion' izan daiteke, baita Nor-Nori-Nork saileko *zeion* 'zion' ere. Nor-Nori-Nork sailak ez du hemen lekurik eta bazter daiteke, eta testuinguruak orainaldiko adizkiaren alde egiten du, baina <e>-dun forma hori berezia da.

150. *Ordaindu* hitzak ez bide du tradiziorik Zuberoako testuetan (cf. OEH, s. v. ordaindu), eta baliteke Larramendiren hiztegitik ateratako forma izatea: *ordaindu* 'recompensar' (HH, II, 229).

<p>Quand la vieilleffe retient les vices de l'enfance, il eft fort difficile à s'en corriger ; &amp; comme c'eft un âge où l'on a beaucoup de honte à recevoir des confeils, la peine eft bien plus grande encore de les fuivre. <i>Epist. 4.</i></p>	<p>Quand la vieillefse retient les vices de l'enfance, yl eft fort difficile a s'en corriger ; et comme c'eft un âge où l'on a beaucoup de honte a recevoir des conseils, la peine eft bien plus grande de les fuivre.</p>	<p>Sahártárunári haurtárunén gálguiriác jarráikitén dirénián, estaýté utzándéric<sup>151</sup>, nólá éré adin hártán anhálkiac ezpeitu náhi efondéric, hálá éré daýté handiágó yarraikitecos béharrá.</p>	<p>Zahartarzunari haurtarzunen galgiriak<sup>152</sup> jarraiten direnien<sup>153</sup>, ez daite<sup>154</sup> ützen<sup>155</sup>, nola ere adin hartan ahalkiak<sup>156</sup> ezpeitü nahi esonderik<sup>157</sup>, hala ere<sup>158</sup> daite<sup>159</sup> handiago jarraitetoz beharra<sup>160, 161</sup>.</p>
<p>&lt;10&gt; La fortune n'a point de place à donner qui foit à l'abry de les atteintes, comme tous les favoris relevent de fon humeur, il faut</p>	<p>La fortune n'a point de place<sup>162</sup> qui foit a l'abri de les atteintes, comme tous les favoris relevent de fon &lt;486&gt; humeur, yl faut necefsairement</p>	<p>Sori honarén dóháñac eftaudé tiefso. Nólá éré hárén maítiaac hári mithil béitaudé<sup>163</sup>, hálá behár dié éré hárén &lt;486&gt; ézégokidári mañéguin.</p>	<p>Zori honaren doháñak<sup>164</sup> ez daude tieso<sup>165</sup>. Nola ere haren maitiak<sup>166</sup> hari mithil<sup>167</sup> beitaude, hala behar die<sup>168</sup> ere haren</p>

151. usténdéric] *utzénderic*. Hitz hau Larramendiren hiztegitik hartua baita (cf. 155. oin-oharra), uste dut Belak gaizki kopiatu zuela eta Larramendirenean <tz> dena, <z> ikusi. Ondoren, herskari aurrean Belak <s> idazteko ohitura zuela eta, <st> eman zuen.

152. *Galgiriak*. Cf. HH (II, 372) *galguiroa* 'vicio'.

153. Perpausak Nor-Nori adizkia eskatzen badu ere, datibo-komunztadura ez da adizkian islatu.

154. *Daite* 'dateke'. Adizki hau, morfologikoki \**edin* aditzetikoa bada ere, *izan* aditzetikoen funtziotik hurbilago dago ('ez dateke', euskara batuan). Batetik, aditz nagusia (aditz-oinaren bidez emana) faltako litzaioke, bestela. Bestetik, jatorrizko frantses testuari hobeki doitzen zaio. Kasu gehiago badirateke. Cf. 144. eta 159. oin-oharrak.

155. *Ützenderik*. Cf. HH (I, 234) *utzendea* 'correccion'. Larramendiri hartutako hitza izanik ere, Zuberoako euskararen fonologiara moldatu beharrean nagoela uste dut eta <ü> eman.

156. Bokala sudurkaria da. Cf. 68. oin-oharra.

157. *Esonderik*. Cf. HH (I, 223) *esondea* 'consejo'.

158. Hemen konparaziozko egitura bat dugu, eta ez aurkaritzako juntagailua: *nola (ere)... hala (ere)*.

159. *Daite* 'dateke'. Cf. 154. oin-oharra.

160. *Beharra* 'lana, nekea'. Esanahi honekin ez da ohikoa mendebaldetik kanpo, nahiz eta badiren adibideak. Bestela, Larramendiren hiztegitik hartua ere izan daiteke. Cf. OEH (s. v. behar, 2).

161. Hitz-ordenari begira, hobeki ulertzen da *daite handiago beharra jarraitzekotz*.

162. Ohar bedi Belak ez duela jatorrizkoan heldu den *à donner* kopiatu.

163. bétaudé] *béitaudé*.

164. *Dohañak* 'dohaintzak'. Zoriak egiten dizkigun dohaintzez edo opariez ari da testua.

165. *Tieso* 'tinko, iraunkor'. Zoriak egiten dituen dohaintzak ez dira iraunkorrak eta betierekoak. Cf. OEH (s. v. tieso).

166. Hots, zoriaren maiteak edo zoriak hautatuak.

167. *Mithil* 'mutil'. Kasu honetan '(zoriaren) mende, zerbitzari, morroi' esan nahi du.

168. *Die* 'dute'.

de neceffité qu'ils fubiffent les loix de fon inconftance.	qu'yls fubiffent les loix de fon inconstance.		ezegokidari <sup>169</sup> mañegin <sup>170</sup> .
Un mal inévitable ne fe fait redouter que des efprits foibles ; celui qui craint la mort, reffent par avance la peine dont elle le menace.	Un mal inevitable ne fe fait redouter que des esprits foibles ; celui qui craint la mort, reffent par avance la peine dont elle le menace.	Anzu flakiéc baizic estié min hélgarrien beldurric. Hilaren lotza denari aitzinés erramiña aguertzén do <sup>171</sup> .	Antzü <sup>172</sup> flakiek <sup>173</sup> baizik ez die <sup>174</sup> min helgarrien <sup>175</sup> beldürrik. Hilaren <sup>176</sup> lotsa <sup>177</sup> denari aitzinez <sup>178</sup> erramiña <sup>179</sup> agertzen do <sup>180, 181</sup> .
Il n'y a que ceux qui apprennent à vivre, qui fçavent comme il faut mourir, tous les autres <11> demeurent toujous difciples en ce métier, ils n'y paffent jamais maîtres.	Yl n'y a que ceux qui aprenent a vivre, qui fcavent comme yl faut mourir, tous les autres demeurent toujours difciples en ce métier, yls n'y pafsent jamais maîtres.	Bicitzén ikhástén diénéc baizic nola hil behár dén dakié: béstiác óró ikháslaré, jagoitic burzagui diradé <sup>182</sup> .	Bizitzen ikhasten dienek baizik nola hil behar den dakié <sup>183</sup> : bestiak oro ikhaslare, <sup>184</sup> jagoitik <sup>185</sup> bürzagi dirade <sup>186</sup> .

169. *Ezegokidari*. Cf. HH (II, 10) *ezezoquida* 'inconstancia'.

170. *Mañegin* 'men egin'. Cf. OEH (s. v. men egin). Segur aski Larramendiren bidez ailegatu da Belarengana, zerbait eraldatuta eta, agian, *maina egin* formarekin nahastuta. Cf. HH (II, 119) *meneguín* 'obedecer'.

171. Duda egin daiteke forma hau hutsa ote den eta *du* zuzendu behar den, datibo-komunztadurarik gabe. Haatik, ebaluatzaile batek iradoki didanez, Zuberoako iparraldeko testu zahar batzuetan, XVIII. mendean bederen, Nor-Nori-Nork saileko forma bereziki higatuak aurki daitezke, hala nola *dot* (< *derot* 'diot' eta *det* (< *deret* 'diet') (ik. Padilla, 2017: § 1.2).

172. Segur aski, Larramendiren hitzegiko *ancia* 'vigor' (II, 373) hitzetik hiperzuzenketaz sortutako forma da, Belaren hizkeran *-ea* > *-ia* eta *-üa* > *-ia* bilakabideak gertatzen baitira, homofonia gertatuz. Cf. antzeko hiperzuzenketak bat 184. oin-oharrean.

173. *Flakia* 'ahula'. Cf. OEH (s. v. flako, 1).

174. *Die* 'dute'.

175. Hots, ezinbestean etorriko diren minak.

176. *Hilaren* 'heriotzaren' Cf. 121. oin-oharra.

177. *Lotsa* 'beldurra'. Cf. OEH (s. v. lotsa, 4).

178. *Aitzinez* 'aurretik'.

179. *Erramina*. Cf. HH (II, 158) *gorputzeco erramiña* 'pena de sentido'.

180. *Do* 'dio'. \**eradun* laguntzaitetik heldu da adizki hau (< *dero*).

181. Hitz-ordenari begira, hobeki ulertzen da *aitzinez agertzen dü erramina*.

182. Lehenik *daradé* idatzi zuen Belak, eta gero zuzendu.

183. Hitz-ordenari begira, hobeki ulertzen da *Bizitzen ikhasten dienek baizik dakié nola hil behar den*.

184. Larramendiren hitzegiko *icaslea* 'discipulo' (I, 293) eta *icasaria* 'aprendiz' (I, 89) hitzen nahasketatik sortutako forma izan daiteke. Gainera, hiperzuzenketaz, *-e* amaiera esleitu dio, *icasaria* forman *-ea* > *-ia* bilakabidea gertatu delakoan. Cf. antzeko hiperzuzenketak bat 172. oin-oharrean.

185. *Jagoitik* 'sekula ez'. Ezezko polaritatedun elementua falta du, halere. Cf. OEH (s. v. jagoitik).

186. Hitz-ordenari begira, hobeki ulertzen da *jagoitik dirade bürzagi*.

Il n'appartient qu'au méchant d'appréhender la mort, c'est le premier supplice de ceux que la Justice des Dieux luy prépare.			
Tout ce que la nature defire fe trouve par tout, mais on chercheroit inutilement en divers lieux, ceux qui fe contentent de ce qu'elle donne.	Tout ce que la nature défire fe trouve par tout ; mais on chercheroit inutilement en divers lieux, ceux qui fe content de ce qu'elle donne.	Sortetórriác galthó diáná órótán idérén daité, béná emaytén diánás afsé déná ihon éré idérén laité.	Sortetorriak <sup>187</sup> galtho <sup>188</sup> diana <sup>189</sup> orotan ideren daite, bena emaiten dianaz ase dena <sup>190</sup> ihon ere ideren laite <sup>191</sup> .
Quand un homme eft élevé par fa dignité au <12> deffus du commun, il faut qu'il la rempliffe par fa vertu, afin qu'en faifant des envieux il impofe filence à l'envie. <i>Ep.</i> 5.	Quand un homme eft élevé par fa dignité au defus du commun, yl faut qu'yl la rempliffe par fa vertu, afin qu'en faifant des envieux, yl impofe filence a l'envie.	Guizoná goyén-diétan dénian aphaltér <sup>192</sup> , birtuthiá aguér defsan, amoregatic jéloskor egitian jeloskeria ífchilarazi defsan.	Gizona goiendietan <sup>193</sup> denian, aphalet birtuthia <sup>194</sup> ager dezan <sup>195</sup> , amoregatic, jeloskor egitian <sup>196</sup> , jeloskeria ixilarazi dezan <sup>197</sup> .
Lorfqu'un homme ne met pas fon cœur dans la vaiffelle d'argent qu'on lui fert, l'ufage lui en	Lorsqu'un homme ne met pas fon cœur dans la vaiffelle d'argent qu'on luy fert,	Guizon batéc mahaiñeco filhar bałchéráry eftiánián bihótzá, hayétán jatés féyo, ta béthi erazco,	Gizon batek mahaiñeko zilhar baxerari eztianian <sup>198</sup> bihotza,

187. *Sortetorriak*. Cf. HH (II, 111) *sortetorria* 'naturaleza, el origen de aver nacido en algun reyno, etc.'. Hala ere, ematen du Bela okertu egin dela hitza hautatzean; izan ere, jatorrizko testuak naturari, unibertsoari egiten dio erreferentzia, eta ez jatorriari. Horretarako Larramendik *iceta* ematen du.

188. *Galtho* 'eskari'. Hemen izena da. Cf. OEH (s. v. galdo).

189. *Diana* 'duena'.

190. Hots, naturak ematen dionarekin aski duena.

191. *Laite* 'liteke'.

192. aphaltér] *aphalér*.

193. *Goiendietan*. Cf. HH *goyendea* 'cargos, empleo, oficio' (I, 175), 'dignidad, puesto' (I, 292). Cf. OEH (s. v. goiende).

194. Forma <i>-duna ez da Zuberoan espero duguna (cf. OEH s. v. bertute). HHk (II, 375), baina, *virtutea* eta *vertutea* dakartza eta baliteke Belarena horren eraginpeko forma izatea.

195. Datibo-komuntadura falta du adizki honek, perpausak Nor, Nori eta Nork argumentuak baditu ere. Bestalde, perpaus honetan aditz nagusia falta da: *behar da* 'il faut' edo kidekoren bat behar luke.

196. Hots, apalagoen artean jelosia eragitean.

197. Hitz-ordenari begira, hobeki ulertzen da *amoregatic* esaldiaren amaieran: *jeloskor egitian jeloskeria ixilarazi dezan amoregatic*.

198. *Eztianian* 'ez duenean'. Datibo-komuntadura falta du adizki honek, perpausak Nor, Nori eta Nork argumentuak baditu ere. Datibo-komuntaduraduna balitz, \**nin* forma berreraikiko adizki trinkoa ere izan genezake, 'eman' esanahiduna.

eft permis, & il lui eft d'autant plus convenable, que la vanité n'a rien contribué à fa façon.	l'ufage luy en eft permis et yl luy eft d'autant plus convenable, que la vanité n'a rien contribué a fa façon.	cérén espeÿtu audiac eraguinarazi.	haietan jatez zeio <sup>199</sup> , ta bethi erazko <sup>200</sup> , zeren ezpeitü audiak <sup>201</sup> eraginarazi.
Il n'y a que ceux qui ne craignent point la mort, qui ſçavent goûter les plaifirs de la vie ; & pour guerir de cette <13> <sup>202</sup> peur, il faut vivre fans reproche.	Yl n'y a que ceux qui ne craignent pas <sup>203</sup> la mort, qui ſcavent gouter les plaifirs de la vie ; et pour guerir de cette peur, yl faut vivre fans reproche.	Hiláren béldur ezténac <sup>204</sup> baizic biziaren gózóac eztáki, ta lotzáric hárés es ukheitécos, lotzaquéritic bague bici behár da.	Hilaren <sup>205</sup> beldür eztenak baizik biziaren gozoak eztaki <sup>206, 207</sup> , ta lotsarik <sup>208</sup> harez ez úkheitekoz, lotsakeririk bage bizi behar da.
La leçon des exemples inſtruit beaucoup plus que celle des preceptes ; celui qui nous mene par la main nous conduit plus feurement encore que celui qui marche devant nous. <i>Epist.</i> 6.			
Les Difciples, que les Sages ont fait à la lumiere de leur actions, fe font rendus bien plus ſçavans que ceux qui ont fuiui l'inſtruction de leurs paroles.			

199. *Haietan jatez zeio* pasartea iluna zait oso. Jatorrizko frantses testua ikusirik, 'Haietan [zilar baxeretan] jatea [haizu/zilegi/sori] zaio' bezalako zerbait espero genezake? Hala ere, instrumentalak (*jatez*) ez du interpretazio hori lagutzen.

200. *Erazko*. Cf. HH (I, 230) *erazco* 'conveniente'.

201. *Audiak*. Cf. HH (II, 362) *audiá* 'vanidad, soberbia'.

202. 31] 13.

203. Ohar bedi testu inprimatuak *point* dioela.

204. ezténa] *ezténac*.

205. *Hilaren* 'heriotzaren'. Cf. 121. oin-oharra.

206. Plural-komunztadurarik gabeko adizkia dela dirudi. Bestela, [*gozatzen*] *eztaki* bezalako zerbait falta dela proposa daiteke, jatorrizko testuari begiratuta.

207. Hitz-ordenari begira, hobeki ulertzen da *Hilaren beldür eztenak baizik eztaki biziaren gozoak*.

208. *Lotsarik* 'beldurrik'. Cf. OEH (s. v. lotsa, 4). Ohar bedi lehenago *beldür* erabili duela Belak, baina *hilaren lotsa* ere badarabilela (cf. 177. oin-oharra).



Il faut affocier quel- <14> qu'un à fa felicité pour fe dire heureux, le plus riche du monde en feroit plus miferable, s'il ne fçavoit à qui donner fes trefors, puifqu'il n'en a que l'ufage en paffant.			
Deux hommes fages fe fervent réciproquement de miroir, leur vie en eft la glace, où ils peuvent voir toutes leurs perfections. <i>Epist. 7.</i>			
Celuy qui fe regarde le premier en tout ce qu'il fait, attire les yeux de tout le monde fur les chofes qu'il a faites.			
<15> Quand nôtre confcience jufifie nos actions, tous les autres fuffrages nous font inutiles. [...]	Quand notre conscience justifie nos actions tous les autres fuffrages nous font inutiles.	Gouré barniác esteïcunian gouré eginétan mehafchuric eguiten, bestén laïdoriác deufére dira.	Gure barniak <sup>209</sup> ezteikünian <sup>210</sup> gure eginetan <sup>211</sup> mehatxürük egiten, besten laïdoriak <sup>212</sup> deüs ere dira <sup>213</sup> .

209. *Barniak* 'kontzientziak'.

210. *Ezteikünian* 'ez digunean'.

211. *Eginetan* 'ekintzetan'. Cf. OEH (s. v. egin, II).

212. *Laidoriak* 'laudorioak'.

213. Hots, besteen laudorioak edo hitz goxoak ez dira beharrezkoak edo garrantzitsuak.

## 6. Ondorioak

Lan honetan Belako zaldun mauletarrak XVIII. mendean idatzitako itzulpen argitaragabe bat eman dut ezagutzera. Itzulpen hau osorik argitaratzea merezi lukeen obra osoaren zati txiki bat baizik ez da.

Manuel Larramendiren hizkuntz ideiek Pirinioak gainditu zituztela erakusten du Belaren eskuizkribuak. HH izan zen, segur aski, gehien zabaldu zen obra, baina Larramendiren ekarpena euskal testuak lexikoz hornitzea baino gehiago izan zela ikusi dugu, bere hizkuntz ideiak ere ezagutu baitzituzten zenbait autorek, eta ez soilik HHren hitzaurretik abiatuta. Belaren kasuan, Larramendiren esanak Zuberoako mintzoaren adibideez osatzeko joera ageri da, baita irakurleko frankofonoarendako moldatzekoak ere.

Testuaren izaerak eta eduki filosofikoak balio berezia ematen dio dokumentuari. Hala ere, autorearen xedea ez da Senekaren filosofia euskaldunei helaraztea, euskararen dohain formalak erdaldunei agertzea baizik. Hartara, itzulpengintza apologetikoaren azpigenero baten aitzinean gaudela esan daiteke. Azpigenero horren ezaugarri nagusia hartzaileak xede-hizkuntza ez ulertzea da eta, horren ondorioz, itzulpenaren edukiari edo mezuari baino gehiago, formari erreparatzea.

Horrek guztiak hizkuntzaren gaineko ardura agertzen du, hausnarketa metalinguistikoa ere badakarrena. Zenbait etimologia, gramatika-azalpen eta adibide emateaz gain, Belak hautu ortografiko eta estilistiko zenbait egin zituen aztergai dugun testuan, kasu batzuetan Egiategik egindakoekin bat datozenak eta geroago, XIX. mendean, zabalduko direnak. Zaldunaren beraren lanetan, MHBtik HBra, eta are HBren barnean ere, hautu horien sistematizazio progresiboa ikusten da. Bi autoreen arteko antzekotasunek eta zaldunak itzulpen-lan gehiago egin zituela jakiteak idatzirako batasun edo jokamolde bat garatu zukeela iradokitzen dute, eta ikertzeko dago eredu ortografiko eta estilistiko honek zer leku duen Zuberoako gainerako tradizio idatziaren aldean<sup>214</sup>.

Etorkizuneko zereginen artean gelditzen da, bistan dena, Belako zaldunaren obra osoa argitara ematea, baina hori gertatzen ez deno, hor dago hiztegi osoa argitaratzeko, baita mauletarraren hizkuntz eta gramatika-ideiak ere, ikertzeko.

---

214. Lanaren berrikusle anonimo batek arras ideia interesgarria luzatu dit: begiratu beharko litzateke zenbateraino ezagutzen zituen goi-mailako gizarte elebidun edo eleaniztunak maila apalagoko jendearentzat ezinbestean euskaraz ekoizten ziren testuak eta horien molde ortografikoak.

## 7. Erreferentziak

- Agirre, Pello (2001): «Belapeireren grafiak», *ASJU*, 35:1, 299-361.
- Agud, Manuel eta Tovar, Antonio (1988): «Materiales para un Diccionario etimológico de la Lengua Vasca I», *ASJU*, 24:1, 253-312.
- Amézaga, Elías (1984): «Del caballero Bela y la primera historia de los vascos», *Kultura: ciencias, historia, pensamiento*, 7, 107-112.
- Aquesolo, Lino de (1967): «Un dictionnaire vasco inserto en Mémoires de la langue celtique, de Bullet (1755-1760)», *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos de País*, 23:2, 141-147.
- Asfeld, (Jean) Latapie-T. d' (1841): *Souvenirs historiques du château d'Henri IV et ses dépendances*, Pagnère, Chez l'auteur, G. Ansas eta J. P. Froment, Paris, Paue eta Tolosa.
- Bijueska, K. Josu (2011): «Filotearen laborategia: Saleskoren euskarazko lehen itzulpenak puritas elokutiboaren arragoan», *Oihenart*, 26, 27-57.
- Clément-Simon, Gustave (1896): *Le protestantisme et l'érudition dans le Pays Basque au commencement du XVIIe siècle*, Honoré Champion, Paris.
- Colas, Louis (1925): «Le Chevalier de Bela», *Gure Herria*, 10-11, 570-579 eta 651-660.
- Coyos, Jean-Baptiste (2002): «Zubereraren idazkeraz: ortografia, fonetika eta fonologia», *Lapurдум*, 7, 201-219.
- Depréaux, Albert (1933): «Le Chevalier de Béla et les coiffures du régiment Royal-Cantabre 1745-1749», *Carnet de La Sabretache*, 364, 209-221.
- Desplat, Christian (1973): «Le Chevalier de Béla, seigneur de village el philanthrope», *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 129, 211-252.
- Dubarat, Victor-Pierre (1913): «L'histoire des Basques par le chevalier de Béla», *RIEV*, 7:2, 137.
- , (1923): «Notes sur le chevalier de Béla: Les manuscrits du Chevalier de Béla à la Bibliothèque Nationale», *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau*, 46, 76-79, 95-102 eta 208-210.
- Etchebest, Xantiana (2017). *Zuberotar dardarkarien bariazio sozio-fonetikoa*, UPPAko eta UPV/EHUko doktorego-tesia.
- Etcheverry, Michel (1948): «Le chevalier de Bela dans sa retraite», *Eusko-Jakintza: revue des études basques*, 2:4-5, 463-537.
- Gèze, Louis (1873): *Éléments de grammaire basque. Dialecte souletin. Suivis d'un vocabulaire basque-français & français-basque*, Imprimerie de Veuve Lamaignère, Baiona.
- Gómez, Ricardo (1997): «Euskalaritzaren historia eta historiografia: ikerketa-arloaren egoeraz», *ASJU*, 31:2, 363-391.
- Hainbaten artean (2013): Xiberotarraren ortografia–Xehetarzün zonbait. Sü Azia elkartearen dokumentu argitaragabea, <<http://suazia.com/images/Xiberotarrarenortografia.pdf>>.
- Hidalgo, Bittor (1995): *Hitzen ordena euskaraz*, UPV/EHUko doktorego tesia.
- Ibarluzea, Miren (2020a): *Euskal literatura itzuliaren egituak eta islak 1975-2015* (Iker 38), Euskaltzaindia eta UPV/EHU, Bilbo.
- , (2020b): «Euskal literatura itzuliaren historiografia bateraturantz», in Ekaitz Santazilia, Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga eta Borja Ariztimuño (arg.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari / Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca*, Nafarroako Gobernua, Iruña, 315-327.
- Izengabea (1748): «Article CV. Dictionnaire Trilingue del Castellano, Bascuence, y Latin...», in *Mémoires pour l'histoire des sciences et des beaux-arts, commencés d'être imprimés l'an 1701 à Trévoux, & dédiés à son Altesse Sérénissime Monseigneur le prince Souverain de Dombes. Octobre 1748*. Chaubert, Paris, 2141-2170, <<https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k30680q/f541.item>>.

- , (2013): *Euskal Klasikoen Corpusa*, UPV/EHUko Euskara Institutua, <<http://www.ehu.eus/etc/kc>>.
- Jaurgain, Jean eta Ducéré, Edouard (1895-1896): *Mémoires militaires du Chevalier de Bela*, A. Lamaignere, Baiona.
- Lacombe, Georges (1935): «Remarques sur l'article précédent», *RIEV*, 26:4, 653-654.
- Lafon, René (1935): «Basque *adiskide* "ami"», *RIEV*, 26:4, 651-652.
- , (1936): «Notes complémentaires sur *adiskide* et sur le suffixe casuel *-ekin*», *RIEV*, 27, 66-72.
- Lakarra, Joseba A. (1983): «Oharrak zenbait arkaismoz», *ASJU*, 17:1, 41-68.
- Larramendi, Manuel (1728): *De la antigüedad y universalidad del Bascuenze en España*, Eugenio García de Honorato, Salamanca.
- , (1729): *El imposible vencido. Arte de la lengua vascongada*, Antonio Joseph Villargordo Alcaraz, Salamanca.
- , (1736): *Discurso histórico sobre la famosa Cantabria*, Juan de Zúñiga, Madril.
- , (1745): *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latin*, Bartholome Riesgo y Montero, Donostia.
- , (1882 [1754]): *Corografía o descripción general de la muy noble y muy leal provincia de Guipúzcoa*, Viuda e Hijos de J. Subirana, Bartzelona.
- Lazcano, Diego (1786): *Ensayo sobre la nobleza de los bascongados...*, Francisco de la Lama, Tolosa.
- Lojkine, Stéphane (2019): «Construire Sénèque», in Nadine Kuperty-Tsur, Jean-Raymond Fanlo eta Jérémie Foa (arg.), *La construction de la personne dans le fait historique, 16e-18e siècles*, Presses de l'Université de Provence, Aix-en-Provence, 183-220.
- Mitxelena, Koldo (1977): *Fonética Histórica Vasca*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Mitxelena, Koldo eta Sarasola, Ibon (1987-2006): *Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Padilla, Manuel (2012): «La influencia de Larramendi en Vasconia Norte. Consideraciones sobre la difusión ultrapirenaica de obras vascas del Sur en el siglo XVIII partiendo de un manuscrito labortano», *De re bibliographica*, 7-8, 33-41.
- , (2017): *Zuberoako euskararen azterketa diakronikoa: XVI - XIX. mendeak*, UPV/EHUko eta UBMko doktorego-tesia.
- Pagola, Rosa Miren (1992): «Larramendi eta dialektologia», in Joseba Lakarra (arg.), *Manuel Larramendi. Hirugarren mendeurrena (1690-1990)*, Andoaingo Udala, Euskaltzaindia, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Adundia, Andoain, 247-266.
- Peillen, Txomin (1963): «Juseff Eguiateguy, Larramendiren zuberotar jarraikizale bat», *Egan*, 1963:1-3, 75-77.
- , (1983a): «Bela-ko zaldunaren Zuberotar hiztegia. XVIII. mendean», *FLV*, 41, 127-146.
- , (arg.) (1983b): *Lehen liburua edo Filosofo Huskaldunaren Ekheia*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , (arg.) (2010): *Egiategiren Filosofo Huskaldunaren Ekheia, bigarren liburua*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Pym, Anthony (1998): *Method in Translation History*, St Jerome Publishing, Manchester.
- Ruiz, Iñigo (1995): «Virgilio Txerribuztangoerrekan (I. *Bukoliken* eta *Georgiken* euskal itzulpenak)», *ASJU*, 29:2-3, 661-696.
- Sanadon, Jean-Baptiste (1785): *Essai sur la noblesse des basques...*, J. P. Vignancour, Paue.
- Santazilia, Ekaitz (2020): «La historia de Navarra, los vascos y su lengua en un "nuevo" manuscrito del caballero de Bela: descripción, autoría y datación», *Sancho el Sabio*, 43, 199-224.

- Sarasola, Ibon, Salaburu, Pello eta Landa, Josu (2019): *Corpus Historikoa*, UPV/EHUko Euskara Institutua, <<http://www.ehu.eus/etc/ch>>.
- Schuchardt, Hugo (1923): *Primitiae Linguae Vasconum: Einführung ins Baskische*, Max Niemeyer, Halle.
- [Serre, Puget de la] (1704): *L'Esprit de Seneque, ou les plus belles pensées de ce grand philosophe...*, Veuve F. Mauger, Paris.
- Urgell, Blanca (1992): «Axular eta Larramendi», in Joseba Lakarra (arg.), *Manuel Larramendi. Hirugarren mendeurrena (1690-1990)*, Andoaingo Udala, Euskaltzaindia, Eusko Jaurilaritza eta Gipuzkoako Foru Adundia, Andoain, 221-246.
- , (2018): «Lehen euskara modernoa», in Joaquín Gorrochategui, Iván Igartua eta Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*, Eusko Jaurilaritza, Gasteiz, 543-653.
- Urkizu, Patri (1992): «XVIII. mendean Larramendiren Hiztegi Hirukoitzak iparraldeko zenbait idazlerengan duen eraginaz», in Joseba Lakarra (arg.), *Manuel Larramendi. Hirugarren mendeurrena (1690-1990)*, Andoaingo Udala, Euskaltzaindia, Eusko Jaurilaritza eta Gipuzkoako Foru Adundia, Andoain, 313-324.
- Urrutia, Eduardo (1927): «Philippe de Béla», *Euskalerraren Alde*, 280, 154-156.
- Walkenaer, Charles-Athanase (1834): *Biographie universelle ancienne et moderne. Supplement* (57. liburukia), L.-G. Michaud, Paris.
- Zulaika, Josu M. (2012): «Breve panorámica de la lexicografía vasca anterior al Diccionario Trilingüe de Larramendi (1745)», *Boletín de la Sociedad Española de Historiografía Lingüística*, 8, 43-72.



